

# GUaiXE.net



**Ziordian I. Herri**  
**Krosa** jokatuko  
da **igandean**



Kirolak >> 11

**I. Arbizu Enduro BTT** jokatuko da  
**igandean** estreinakoz. 100  
txirrindularik **launa jaitsiera** egin  
beharko dituzte **basoan**



Kirolak >> 13



Arakilgo eta Irurtzungo hautetsiak eta izan direnak giza katean parte hartzera deitu dute. UTZITAKOIA

## Sakatxartel Asteburua, abantailak eta sariak

Beleixeguaixe Txartela erabiltzeagatik ohiko abantailaz aparte, asteburuko erabiltzailerak bi sari ederren zozketan sartuko dira

>> 5

## Kenyarekin elkartasun eguna bihar Lakuntzan

Afrikako herrialdean haurrek bizi dituzten zailtasunei aurre egiteko erabiliko dute jasotako dirua

>> 3

# Giza katean parte hartzeko gonbitea

>> 5

**Elikagai Bankuaren**  
aldeko jaki bilketa  
gaur eta bihar

>> 3

**EHBilduren lidergoa**  
eta txikien hazkundera  
hauteskundeetan

>> 6-7

**Kudeatzaile**  
berria du  
Arbizuko  
telefonía  
enpresak,  
Izaratelek

>> 8



**Sakanako lau**  
talde Haur  
Kantari Jaialdi  
Nagusian >> 14



**Nafarroako**  
erlojupeko  
txapelketa  
Iturmendin >> 13



**Ustarrozen**  
lanak Iruñeko  
arte eskolan  
ikusgai >> 15

Modu ezberdin batean begiratzen ikasi

**Sakana optika**

Graduatutako betaurrekoa + eguzkitako betaurrekoa

**OPARI**

...eta edozein egoeratan ikusiko duzu

optikasakana@gmail.com • 948 563 124 • Iortia Plaza 11 • ALTSASU



# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

GURE  
REMOVE  
PLANA

%20<sup>ra</sup>  
arteko  
deskontua

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



## maiatzak-garagarrikak

# 20-5

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

**Ane**  
ZORIONAK printzesa!! Egun zoragarria pasa ezazu eta gozatu zure lagunekin!! Zeinen handia, 7 urte!! Muxu handi bat, Joseba, aita eta ama.

**Alaine Senar Ormazabal**  
ZORIONAK ALAINE! Bat bi eta... hiru!! Hiru urte bete dituzu, segi orain bezain alai eta salsera. Muxu handi bat denon partetik.



**Izadi Garzia Gurutzarri**  
Ongi etorri Izadi!! Bizi poza ekarri duzu gure etxera. Maite zaitugu!! Lizarragako familia.

**Maren Goñi Jauregi**  
ZORIONAK! Urte bat zurekin! Aixiteneako bihurria.



La banda del jefe Bigun.

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

### Musika

**Lakuntza kantuz.** Maiatzaren 30ean, ostiralean, 19:30ean Lakuntzan.

**Skontra.** Maiatzaren 30ean, ostiralean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

**Erkudengo Ama abesbatza.** Maiatzaren 31n, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Sykorax eta La banda del jefe Bigun.** Maiatzaren 31n, larunbatean, 23:00etan Lakuntzan.

**Dj-K: Txen, Letxu, Dzergy, Rail, Gordon, Lokesea eta Green sound system.** Maiatzaren 31n, larunbatean, 00:00etan Altsasuko gaztetxean. Garraxi Irratia.

**La Jodedera.** Garagarrikaren 1ean, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

**Ikasturte akaberako jaialdia.** Garagarrikaren 3an, asteartean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Altsasuko Musika eta Dantza eskola.

### Dantza

**Ikasturte akaberako jaialdia.** Maiatzaren 30ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Dantza garaikideko jaialdia.

### Mendi irteera

**Finalista.** Garagarrikaren 1ean, igandean, goizez, Etxarri Aranazko San Adrianen. Udaberri eta Larrañeta.

**Bisaurin.** Garagarrikaren 1ean, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

### Bizikleta irteerak

**Iturgoiengo trinitatea.** Garagarrikaren 1ean, domekan, 7:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 68 km. Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.

### Erakusketak

**Koldo Arnanz arte eskola.** Maiatzaren 31ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Uraren gazte foroa.** Garagarrikaren 2tik 15era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. Aralarko Mikel Donea institutua.

### Hitzaldiak

**Asturies: lucha obrera, lengua asturiana, izquierda soberanista y espacios autogestionados.** Maiatzaren 30ean, ostiralean,

19:00etan Altsasuko Gaztetxean.

**Crisis institucional en Nafarroa Fueros y Gamazada.** Maiatzaren 30ean, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. Hizlariak: Joseba Asiron eta Tomas Urzainki.

### Bestelakoak

**Euskal festa.** Maiatzaren 31n, larunbatean, 10:30etik aurrera Etxarri Aranazten.

**Kenyarekin elkartasun eguna.** Maiatzaren 31n, larunbatean, 12:00etatik aurrera Lakuntzan.

**Garraxi Irratiaren festa.** Maiatzaren 31n, larunbatean, 16:00etatik aurrera Altsasun.

**Afaria eta musika.** Maiatzaren 31n, larunbatean, Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 30ean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Garagarrikaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Garagarrikaren 2an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM  
**beleixe** online  
www.guaixe.net

Piztu irratia!

## ASTEBURUKO AGENDA

**ASTEKO ERREPASOA:**  
albisteak, kirolak,  
Lakuntzako elkartasun egunaz  
Garazi Garinekin...

Esataria: Eneida



## SAKANA

## Hirugarren hilabetez langabeziak behera

**Apirila akaberan 1.703 sakandar zeuden Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda, aurreko hilean baino 21 gutxiago**

Otsailean hartu zuen beherako joerari eusten dio langabezi datuak Sakanan. Langabe gehienak emakumezkoak dira 920 edo %54,02 (aurreko hilean baino 13 gutxiago). Gizonezko langabeak 783 dira, %45,98 (9 gutxiago). Adinari dagokionez, 45 urtetik gorakoa da langabetuen adin talde handiena: 791 edo %45,88 (19 gutxiago). 25 eta 45 urte artean dituzte lan bila dabilen 765 sakandarrek, %44,37 (20 gutxiago). Azkenik, 25 urte baino txikiagoen taldean 168 sakandar, %9,74, daude izena emanda (18 gehiago).

## Sektoreak

Lan bila dabilen sakandarren %58,24k, 1.004k, zerbitzuetan lan egin nahiko luke (20 gutxiago).

Langabezia herrika		
Herria	Langabetuak	Aldea
Arakil	67	-3
Irurtzun	176	-19
Irañeta	10	0
Uharteko Arakil	59	+5
Arruazu	3	+1
Lakuntza	85	+8
Arbizu	74	-4
Ergoiena	11	+1
Etxarri Aranatz	175	+12
Bakaiku	18	+2
Iturmendi	22	-1
Urdiain	35	-1
Altsasu	796	-27
Olatzagutia	143	+7
Ziordia	29	-2
<b>Sakana</b>	<b>1703</b>	<b>-21</b>

Industrian lan egiteko prest %26,54 dago, 452 sakandar (3 gutxiago). Eskera kopuruaren aldetik erakuntza hirugarrena da %7,81 eta 133 eskaerarekin (4 gutxiago). Abeltzaintzak, azkenik, %1,76ren, 30 pertsonaren eskaerak jaso ditu (4 gehiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez duten sakandarrak %6,11 dira, 104 (2 gehiago).



Zumalakarregi plazako konponketa lanetan.



Elikagai bankuko boluntarioak.

## Gaur eta bihar jaki bilketa

Beharrea dauden pertsonen artean banatzeko izanen dira

Nafarroako Elikagai Bankua betetzeko jaki bilketa egingen da gaur eta bihar herrialdean. 40.000 nafarrek behar dituzte erakunde horrek banatzen dituen jakiak. Haien artean Sakanako 243 familia daude. Finantza krisiak ekonomiaren okertzea ekarri zuen eta hark kolpatutako pertsonak zerjan izateko lan egiten du Nafarroako Elikagai Bankuak.

Erakunde boluntarioak gaur eta bihar Sakanan lanean egonen dira galtzen ez diren jakiak biltzen. Irurtzunen Coviran eta Eroskiren aurrean jasoko dira elika-

gaiak. Arbizun, berriz, Eroskin eta elizan eta Altsasun, azkenik, BM Neton, Eroski Centerren eta Eroski Cityn jasoko dira jakiak. Bai batean bai bestean boluntarioek herritarrei Nafarroako Elikagai Bankuaren poltsak banatuko dizkiete denda barruan nahi dutena erosi, han sartu eta gero irteeran emateko.

Uharteko Arakilen jubilatuen elkartean, Lakuntzan apaiz-etxean eta Etxarri Aranatzeko musika eskola zaharretan jasoko dituzte elikagaiak. Boluntarioak 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egonen dira jakiak biltzen. Hiru herri horietako dendetan poltsak utziko dituzte eta bezeroek haietan eman nahi dutena sartu beharko dute gero aipatutako tokietara era-

mateko. Esan bezala, donazioa dendetan utzi beharrean poltsekin zehaztutako tokietara joan beharko da. Olatzagutian eta Ziordin parrokiaren jasoko dituzte elikagaiak.

## Botiketan

Jaio berri eta umeen artean ere nutrizio eskaseko kasuak badirela jakinik, Farplusen biltzen diren herrialdeko botikek Nafarroako Elikagai Bankuarekin kolaboratzea erabaki dute, haien artean Irurtzongo, Etxarri Aranatzko, Altsasuko eta Olatzagutikoak daude. Aste guztian jasoko dituzte haur-elikaduraren zerikusia duten elikagaiak: papilak, poteko jakiak edota esne artifizialak. Aste honetan ezin dutenek, asteartera arteko epe luzapena izan dute.

## Lakuntza

## Kenyarekin elkartasun eguna larunbatean

Erakusketa batekin mustuko dute elkartasun eguna eta ekitaldi ugari izanen dituzte

Pasa den urteko abuztuan izan zen Kenyan Garazi Garin lakuntzarra. Inoiz bizitako esperientziarekin itzuli da. Kenyan hilabete batez izan da, eta hango errealitate gordina ezagutu ostean itzuli da. Haurrekin izan da batez ere. Eurekin eskolaritua da. Behar zirelanak egin dituzte; baratzetan lagundu eta jantokian aritu. Baina, batez ere, haur eta nerabeekin izan da, eurekin jolasean. Nairobi, gainera, umezurtzetxe bat irekitzen izan da Garin. Kenyan gazte batek ireki du gurazorik ez duten haurren dako gordelekua eta laguntza eskaini diote. "Haurren bizimodua gogorra da Kenyan, batez ere hemengo errealitatek urrun dagoelako", adierazi du Garinek. "Hartueman bere-

zia sortzen da bertako biztanleekin". Hamabi boluntario izan ziren joan den agorrilean.

## Elkartasun eguna

"Kenyako errealitatea hitzez baino argazki bidez erakustea adierazgarriagoa da", esan du Garinek. Hori dela eta, larunbatean goizean irekiko dute argazki horiek bilduko dituen erakusketa. Udaletxean paratuko dute eta goiz eta arratsalde bisitatu ahal izanen da. Haurrendako puzgarriak izanen dira eta eguerdian herri bazkarian bilduko dira. Horretarako salgai jarri dituzte txartelak herriko ostatuan eta Sorgiñak tabernan. Aste osoa izanen da aukera halako bat eskuratzeko. Helduek 15 euro ordaindu beharko dute eta haurrek doanekoa izanen dute bazkaria.

Gauean, kontzertuak antolatu dituzte. Lekunberriko talde batek joko du lehendabizi, Sykorax-ek eta ondoren, La banda del jefe Bigun



Garazi Garin, Lakuntzako Kenyarekin elkartasun eguna aurkezten.

ariko da. Jendea animatzea espero du Garinek, izan ere, Kenyako egoera latza zein den zabaltea da helburua eta hango zailtasunei

aurre egiteko dirua biltzea. Interneten haurrei elikagaiak ziurtatzeko aukera dago, hilabete bakoitzean euro bat igorrita. Hauxe da

## Bigarren bidaia bat ere bai

Garilean itzultzekoa da Garin Kenyara. Lagun batekin batera abiatuko da mustu zuten umezurtzetxe. Kenyan laguntza ezinbestekoa dute egunerokari aurre egiteko eta beste hilabete batez izanen dira han. Ez dira Gobernu Kanpoko Erakunde bitartez joaten, Kenyan ezagututako neska gazte baten bitartez egin dituzte harremanak. Hark zabaldu zuen umezurtzendako etxea eta harekin izaten dira. Hegazkinak euren kontura hartzen eta ordaintzen dituzte eta Kenyan egonaldia egiteko tokia eskaintzen diete.

web gunea: www.kiberapride.org. Kontu korrontea zabalik ere badute edozein laguntza ongi etorria baitaie beti.



astekoa

parrutik  
kanpora

Xabier Reparaz Extramiana

## Eredu transozeanikoak

Telebistari darion etengabeko informazio horretan, batzuetan harrapa dezakegu entzutea merezi duen mezuren bat. Aurrekoan gertatu zitzaidan, igande arratsan, sofán jarri eta Jordi Evole harrapatu nuen Jose Mujika, Uruguayko presidentearekin hitzketan. 79 urteko agurea bere lorategian txakur, katu eta oiloz inguratua zegoen. Haren itxurak ez

zuen presidente batena ematen, jubilatutako pentsio murriztutako gizonarena baizik. Itxurak, ordea, filosofoa ezkutatzen zuen. Hark esandakoek argi erakusten zuten, gure Europa zaharreko politikaren kalitate eza. Ekonomiaren esanetara, lau urteko epe motzean arrakasta lortu nahian, Herria ahazten duten politikariek mintzo zen Mujika. Entxufatu

tutako funtzionario desmottibatu, munduko goseaz, narkotrafikoaz edo bekaizkeriaz eta miserietaz hitz egin zuen. Kontsumismoaren etsaitzat zuen bere burua. Gizartearen etengabeko kontsumoak herritarrari zorigaitza baino ez zekarkiolako, bere bizia xahutzen baitzuen diru gehiago lortu eta gehiago erostearren. Dirua denbora zela zioen, gure

bizitzaren denboraren truke ematen diguten dirusaria. Aberatse na gutxien behar duena da, gutxiago irabazi arren, bizitza osoagoaz disfrutatu dezakeena, alegia. Uruguaydarrak pozik egondaitezke beren agintariarekin, gureak pairatuko balituzte, horien argitasun ezaz harrituta azkarnazkatuko bailirateke. Ereduak behar ditugu, begira dezagun kanpora.

## hara zer dien

# Arrazakeria edo klasismoa

Arrazakeriaren kontrako kanpaina baten berri izan dugu, futbol jokalarit bati platano bat botatzearen ondorioz.

Pertsonaia famatu asko agertu da orain ere, jokalariekiko elkartasuna adierazten, platanoak janez, eta halakorik berriro gerta ez dadin eskatuz.

UEFAk arrazakeriaren kontrako kanpaina berezi bat dauka, eta futbol kapitaina askok manifestuak irakurtzen dituzte arrazakeriaren kontra.

Zergatik? Oso erraza da: ez dago arrazakeriarik. Dena diru kontua da. Inor ez da arrazista milioi iduna den afrikar edo arabiar bate

kin. Inori ez dio axola Michael Jordan edota Morgan Freeman bezalako auzokide bat izatea ezta?

Pertsona gutxi dago futbol jokalarit bati platano bat botatzearen alde, noski. Baina gogaikarria bere ondorioa da: platanoa bota zuen mutilak ikaragarritzko isuna jaso du; sozialki estigmatizatu dago, eta lanpostutik despeditua da.

Eta aldiz, platanoa jaso duen aberats okitua heroi bihurtu da, eta eredu soziala.

Futbol zelai batera joan eta nahi adina irain botatzea, ez dago gaizki ikusia, bereziki arbitroen kontrabada. Baina iraina arrazista

bada, kontua aldatzen da.

Egiazko arrazoia da pobre eta gutxiatsiak diren pertsonen benetako fobia diegula. Mehatxutzat hartzen ditugulako.

Horrek kontu larriago batera garamatza. Arrazakeria baino gehiago bi zentzutan jokaten duen klasismoa dago: batetik, aberatsekiko miresmen gehiegikoa, eta telebistan agertzen diren pertsonen ikusgarritasun gehiegikoa; eta bestetik, pertsona pobreekiko mesprezu gehiegikoa.

Izan al da noizbait Melillan harresia saltatzen saiatu diren pertsonen aldeko kanpainarik? Europar sartzeko saiakeran

duen dena arriskutzen duten pertsona horien aldekorik? Ez, noski.

Kontu hau dena definitzeko modurik hoberena, futbol talde bateko jokalariek egin zuten, beraien taldea hondotik ateratzeko eginahaletan arabiar milioi iduna bat beraienera iritsi zenean. Orduan "jeko" deitzen zioten. Baina benetan dirurik ez zuela ikasi zutenean, beste modu oso ezagun batez deitzera pasa ziren: "El moro".

Arrazakeria edo klasismoa?

## Immigrazio Zerbitzua

## gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutunak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

## Gure gorputza, gure erabakia!

Izaskun Jarones Bergera, Leire Razkin Galan, Iosune Diaz Arce eta Saioa Arregi Olivenza, Altsasuko Feministak eta Bilgune Feministaren izenean

Pasa den asteazkenean, 28an, emakumeon osasunaren eguna izan zen. Sexu eta ugalketa eskubideak aldarrikatzera kalera atera ginen berriro ere.

Abortatzeko eskubidea Euskal Herriko mugimendu feministaren sorreratik aldarrikatu den

eskubidea izan da. Emakumeon autonomia eta gure gorputzaren gaineko kontrola aldarrikatzen hasi ziren momentutik abortatzeko eskubidea presente egon da.

Urteak daramatzagu gure gorputzaren jabe garela aldarrikatzen. Etenik izan ez duen borroka dugu, emakumeok gure ugalketa eta sexualitatea erabakitzeko askatasuna beti helburu izan duena. Ama eta emaztearen papera hamaika modu ezberdinetan inposatu digun jendarte honi aurre egi-

tea izan da hasieratik mugimenduko feministaren zeregina.

Gure sexualitatea eta ugalketa gaitasuna askatasunez bizitzeko eta gure gorputz, sexualitate eta bizitzaren inguruan eragozpenik gabe erabakitzeko nahikotxo geratzen zaigu oraindik.

Horretarako irtotasunez eskatzen dugu;

· Bai hezkuntza nola osasungintza arloan sexu hezkuntza politika publikoak ezartzea.

· Antisorgailuak lortzeko eskuragarritasuna eta horien inguru-

ko informazioa.

· Lagunduriko ugalketa sarbide askea eta doakoa emakume guztiontzako.

· Abortua libre eta dohain osasungintza publikoan. Desiratua ez den haurdunaldia eteteko baldintzak hobetu ezean, PPK abortua zigortu, mugatu eta baldintzatu nahi du kausazko lege batera itzuliz, non abortatzeko eskubidea kriminalizatu eta murriztuko den.

Guk erditzen dugu, guk erabakitzen dugu!!!

## Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano

**ZUZENTZAILEA:** Oihana Zubeldia  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRATZAILEA:** Gixane Andueza Goikoetxea

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Salburuzordeta

## SAKANA

# Bueltan da Sakatxartela

**Gaurtik igandera Belexeguaixe Txartela erabiltzen dutenek, abantailaz aparte, bi sariren zozketan sartuko dira**

Belexeguaixe Txartela duten 1.570 sakandarrek 80 establezimendutan baino gehiagotan erosketak egiterakoan deskontu eta abantailak dituzte urte guztian. Gaurtik igandera, gainera, Sakatxartel Asteburuan erosketak egiteagatik, berdin da handiak edo txikiak izan, bi sariren zozketan sartuko dira. Aurrena: Urbasa Abentura parke-rako bi sarrera eta bi lagunendako bazkaria Urbasako kanpinuean. Bigarrena: Erein argitaletxeko liburu lote bat eta Belexeguaixe txartel bat. Erosketa egin ondoren datuak papertxo batean idatzi eta horrela sartuko da zozketan.

Bierrik fundazioak bere laguntzaileak Sakatxartel Asteburuan Belexeguaixe Txartela erabiltzera gonbidatu ditu, txartelaren erabilera onurak besterik ez dituelako ekartzen. Norberak lortu ditzakeen abantailaz aparte, Sakanan bertan erosketak egitean sakandarren arteko harremanak

## Hurrengo SAKATXARTEL asteburuak

Maiatzak 30-Ekainak 1  
Uztailak 25-27  
Irailak 26-28  
Azaroak 28-30

sustatzen dira. Aldi berean, herriak bizi eta denda txiki eta ertainez osatutako merkataritza sarea osasuntsu mantentzen laguntzen da.

### Txartela

Bierrik fundazioak Sakanan euskaraz ari diren hedabideak, **Guaixe** astekaria eta **Belexe Irratia (FM 107,3)**, sustatzen ditu. Haien lanarekin aurrera jarraitzeko ezinbestekoa bihurtu da Belexeguaixe Txartela, fundazioaren autofinantziazioa hobetzen duelako. Horren truke Bierrik fundazioaren laguntzaileek abantaila batzuk eskuratu ditzakete. Baina Belexe-



Aurreko Sakatxartel asteburuko irabazleetako bat.

guaixe Txartelaren beste bertutea da ibarrean bertan erosketak egitera bulkatzen duela eta hala bertako komertzioak aurrera egin dezakete. Egunero erabil daitezke

Belexeguaixe Txartela autoendako erregaia, tailerra, arropa, ile-apaindegia, janari denda, harategia, eguneroko menua... ordaintzeko eta abantailak lortu.

### Belexeguaixe Txartela lortzeko

Hots egin 948 564 275 eta 948 562 107 telefonoetara edo [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net) atarian sartu eta Bierrik Fundazioko bazkide/babesle egin. Urteko 50 euro ordaindu behar dira. Erosketak Sakanako dendetan egiten dituzten babesleek erraz errekuperatuko dute babesleztzagatik ordaindutakoa. Gainera, errenta aitortpenean %25a desgrabatuko du foru administrazioak.

Belexeguaixe Txartela duten Bierrik Fundazioko babesleek hura non erabili azaltzen duen esku orria jaso dute. Horrekin batera, Belexeguaixe Txartela erabili daitekeela dioten identifikatzaileak daude establezimenduen sarreretan. Hura ikusten duten fundazioko babesleek badakite han erosketa egiterakoan deskontu edo beharpen erakargarriak eskuratu ditzuela.

## SAKANA



Elkar ezagutzuz, egun polita pasa zuten.

### Elkar ezagutza forjatuz

Literalki hala aritu ziren igandean Izurdiagan antolatutako txangoan parte hartu zutenek. Brundarren forjaren interpretazio museoan burua lantzen ikusi eta praktikatzen aritu ziren. Horretaz aparte, eguraldiak lagundu ez zuenez, hainbat eskulan tailer, baratze lan, eta elkar ezagutzeko dinamikak egin zituzten goizez.

Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak elkar ezagutzarako antolatutako irteeran Sakana, Ekuador, Bolivia eta Marokon sortutako 25 lagunek parte hartu zuten. Guztiek ere parte hartze saria jaso zuten arratsaldean, Izurdiagako elkartean bazkaldu eta jolasetan parte hartu ondoren.

## &gt;&gt; Altsasu

## Alkatea eta alkate-ohiak erabakitze eskubidearen alde

**Altsasuarrak eginen den giza kateko 83. km-an egotera gonbidatu dituzte**

Garagarrilaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza kateari eta hura sustatzen duen Gure Esku Dago ekimenari babesa azaldu diote Altsasuko alkateak eta alkate-ohiek. Garazi Urrestarazu alkatearekin batera agerraldia egin dute ardura bera izan duten Gerardo Del Olmok, Camino Mendiluzek, Jose Angel Agirrebengoak (ezin izan du egon), Asun Fernandez de Garaialde Lazkanok eta Unai Uhaldek.

Seiek aldarrikatu dute eskubidea dugula gure etorkizuna herri gisa erabakitze eta herritarroi



Gure Esku giza katean parte hartzea deitu dute alkate-ohiek eta alkateak.

dagokigula erabakia hartzea. Aldi berean, adierazi dute borondate irmoa dutela eskubide hori egi-

karitzeko, "nazioa gara eta erabakitze eskubidea dugu, gure esku dago".

### Giza katean parte hartzeko gonbitea



Arakilgo eta Irurtzango udal-tan zinegotzi izandako talde batek bi udalerritako herritarrek garagarzaroaren 8an eginen den giza katean parte hartzea gonbidatu dituzte. Erabakitze eskubidearen alde Gure Esku Dago ekimenak sustatu duen giza kateak Durango eta Iruñea lotuko ditu.

## SAKANA

## Euskaltzaleek gobernuari aurrekontuetako partidak gauzatzeko eskatu diote

**Aldi berean ezinbestekoa jo dute euskaltegiendako, Euskara Zerbitzuendako, bertsolaritza irakaskuntzan programarako, euskarazko hedabideendako eta beste hainbat proiektuendako finantziazio iraunkorra eta duina ematea eskatu diote**

Asteartean Nafarroako Parlamentu aurrean makina bat euskaltzalek kontzentrazioa egin zuten toki erakundeak, Nafarroako Bertsolaritza Elkarteak, UEMAK, IKAK eta AEKK deituta. Bilkuran salatu zuten, "2012ra arte eskasak izan dira gobernuak euskara normalizatzeko lanean ari diren proiektuei bideratuzkien diru-baliabideak". Krisiaren eta defizitaren aitzakiarekin "jardun politikoari itotze ekonomiko" gehitu diola nabarmendu zuten. Atzera ere salatu zuten Nafarroako Gobernuak euskara eremu guztietatik desagerrarazi nahi duela errepikatu nahi dugu.

Euskalgintzako eragileek euren jardunarekin aurrera jarraituko zutela berretsi zuten: "euskararen normalizatorako ezinbestekoak diren proiektuetan hartutako konpromisoak betetzen, euskaraz bizi nahi dugulako". Eta goraiatu egin zuten egunero herritarrek euskaraz bizitzeko erakusten duten nahia.

## Europako hauteskundeak

## Euro-ajea

Europako Parlamentua berritzeko hauteskundeek ondorio ugari utzi zituzten Espainiako hauteskunde barrutian. Parte hartzea inkestek iragarritakoa baino altuagoa izan zen eta, hala eta guztiz ere, estatuko bi alderdiek boto galera handia jaso zuten. Ondorioz PSOEko buru Alfredo Perez Rubalcabak kargua utzi-ko duela iragarri du. Indar handiek behera egin duten bitartean txikiak sendotu egin dira boto pila eskuratu. Horrela gelditu da 54 parlamentarien banaketa: PPK 16 (-8), PSOE 14 (-9), Izquierda Plural 6 (+4), Podemos 5 (+5), UPyD 4 (+3), EAJren Europaren Alde koalizioa 3 (+1), ERCren EPDD 2, Ciudadanos 2 (+2), EHBilduren Herriek Erabaki 1 (+1) eta Primavera Europea (+1).

## Hauteskunde legeri intsumisioa

Emakume altsasuar batek hauteskunde sistemarekin desadostasuna azaltzeko intsumisioa egin eta igandean ezzen mahaira azaldu

Altsasuk hauteskunde mahai batean bigarren bokal izatea tokatu zitzaion emakumeari. Iruñeko Hauteskunde Batzordeari mahaiaren ez parte hartzeko kontzientzia arrazoiak argudiatuz idatzia bidali zien altsasuar-rrak, baina ez zioten onartu. Hauteskunde legea bidegabekoa dela iritzita ez parte hartzea erabaki zuen.

Hitzondo.net web orrira bidalitako gutunean emakumeak bere jarreraren zergatia azaldu du. Bizi duguna "banku eta multinazional handien eskutik doan sistema politiko ustela da, inolako zigorrik jaso gabe, bere interes propioen alde eginez pertsonak, kulturak, nortasunak, baloreak suntsitzen ditu; natura eta baliabideak atsedetik gabe irensten dituena". Gutunean jasotzen duenez, "sistema patriarkala beldurrean oinarritzen da, mehatxu zuzena populazioaren kontra erabiliz". Aipatzen duenez gero eta nabariagoa da gizartearen sistemarekin bat ez etortzea. Sistemak etengabe xantaiaren menpe bizitzera behartzen gaituela eta horrek gabezia eta zurikeri bizitza ekartzen dituztela nabarmendu du. Bestelako sistema partehartzaileago bat aldarrikatu du.

Bere jarrera bera hartu dute hainbat pertsonak Euskal Herrian ere. Erabakiak hiru hilabete eta urte bat arteko espetze zigorra edo isuna ekar diezaike. Bestalde, hauteskunde legeraren kontra eta intsumisioaren aldeko kartelak agertu ziren asteburuan Sakanako hainbat herritan.

## NAFARROAKO EMAITZAK

UPN eta Geroa Bai aurkeztu ez diren Europako Hauteskunde hauetan, Nafarroan ere deskalabru nabaria jasan dute estatuko bi alderdi nagusiak. Aurreko deialdian baino boto gutxiago jaso dituzten bi hautagai-tzak dira. 22.225 boto galduta ere, PP nafarren babes gehien jaso duen

indarra izanda. PSOEk, berriz, azken deialdiko babesaren erdia galdu zuen (31.693 boto) eta nafarren hiru-garren hautua bihurtu da.

EHBildu koalizioa osatzen duten indarrek duela bost urte bi hauta-gaitzetan banatuta aurkeztu ziren. Igandean aurreko deialdian baino 6.142 boto gehiago eskuratu zituzten bigarren indarra bihurtuz Nafarroan. Bultzada handia jaso du hauteskundeetan Izquierda-Ezkerra koalizioak 13.668 bozekin laugarren indar gisa sendotuz. Estatuko bezain sarrera egin du Nafarroan



Iurtzun				
Urtea	2014	2009	2004	
Errolda	1.587	1.565	1.584	
Zuriak	17 %2,60	14 %2,19	5 %0,90	
Baliogabeak	10 %1,51	6 %0,93	132 %19,27	
Abstentzioa	923 %58,16	919 %58,72	899 %56,76	
Botoak	664 %41,84	646 %41,28	685 %43,24	
Alderdiak	Botoak	Botoak	Botoak	
EHBildu	267 %40,82			
PP	125 %19,11	189 %29,53	236 %34,45	
PSOE	63 %9,63	143 %22,34	174 %25,40	
IUN-NEB	52 %7,95	19 %2,97	17 %2,48	
Podemos	37 %5,65			
UPyD	22 %3,36	2 %0,31	--	
EAJ-PNV	17 %2,59	10 %1,56	14 %2,04	
Primavera Europea	9 %1,37			
Ciudadanos	3 %0,46			
EPDD	3 %0,46			
Besteak	39 %5,96			
II	----	160 %25,00	132 %19,27	
Aralar-EA	----	67 %10,47	94 %13,72	
LV-GVE	----	12 %1,88	2 %0,29	

Arakil				
Urtea	2014	2009	2004	
Errolda	413	754	732	
Zuriak	1 %0,54	8 %1,38	2 %0,82	
Baliogabeak	0 %0	4 %0,68	47 %16,17	
Abstentzioa	229 %55,45	466 %61,80	441 %60,25	
Botoak	184 %44,55	288 %38,2	291 %39,75	
Alderdiak	Botoak	Botoak	Botoak	
EHBildu	87 %47,28			
PP	34 %18,48	90 %31,69	121 %42,01	
Podemos	18 %9,78			
PSOE	10 %5,43	34 %11,97	53 %18,40	
IUN-NEB	9 %4,89	11 %3,87	11 %3,81	
EAJ-PNV	7 %3,80	6 %2,11	5 %1,73	
Primavera Europea	3 %1,63			
UPyD	2 %1,08	1 %0,35	----	
EPDD	1 %0,54			
Besteak	12 %6,52			
II	----	83 %29,23	47 %16,17	
Aralar-EA	----	27 %9,51	44 %15,27	
LV-GVE	----	4 %1,41	----	



Podemos-Ahal dugu alderdiak, ia I-Eren emaitzak berdinduz. Botoak bikoiztuta, gorako bidean segitzen du UPyDk eta antzeko EAJ-PNV.

Sakana				
Urtea	2014	2009	2004	
Errolda	15.348	15.910	15.886	
Zuriak	105 %1,58	62 %0,95	36 %0,55	
Baliogabeak	76 %1,15	34 %0,52	1.982 %29,09	
Abstentzioa	8.720 %56,82	9.397 %59,06	9.073 %57,11	
Botoak	6.628 %43,18	6.513 %40,94	6.813 %42,89	
Alderdiak	Botoak	Botoak	Botoak	
EHBildu	3.036 %46,34			
PP	880 %13,53	1.297 %19,91	1.689 %24,79 <sup>(1)</sup>	
PSOE	596 %9,10	1.231 %18,90	1.385 %20,32	
EAJ-PNV	450 %6,87	276 %4,23	318 %4,66	
Podemos	437 %6,67			
I-E <sup>(2)</sup>	427 %6,52	134 %2,05	167 %2,45	
UPyD	173 %2,64	40 %0,61	0 %0	
Primavera Europea	60 %0,92			
Ciudadanos	34 %0,52			
EPDD	14 %0,21			
Besteak	340 %5,19			
II	----	2.481 %38,09	1.982 %29,09 <sup>(3)</sup>	
Aralar-EA <sup>(4)</sup>	----	728 %11,17	1.111 %16,30 <sup>(5)</sup>	
LV-GVE	----	53 %0,81	25 %0,36	

<sup>(1)</sup> UPN eta PP elkarrekin aurkeztu ziren. <sup>(2)</sup> Aurreko biak Ezker Batuaren datuak dira. <sup>(3)</sup> HZren bozak baliogabete egin zituzten. <sup>(4)</sup> EHBildu koalizioan aurkeztu dira. <sup>(5)</sup> EA eta Aralar bakoitza bere aldetik aurkeztu zen.

Irañeta				
Urtea	2014	2009	2004	
Errolda	139	143	144	
Zuriak	2 %3,77	2 %3,70	2 %3,39	
Baliogabeak	1 %1,89	1 %1,82	11 %15,71	
Abstentzioa	86 %61,87	88 %61,54	74 %51,39	
Botoak	53 %38,13	55 %38,46	70 %48,61	
Alderdiak	Botoak	Botoak	Botoak	
EHBildu	26 %50			
PP	16 %30,77	25 %46,30	34 %48,57	
EAJ-PNV	2 %3,85	2 %3,70	1 %1,42	
PSOE	1 %1,92	6 %11,11	5 %7,14	
UPyD	1 %1,92			
Podemos	1 %1,92			
Primavera Europea	1 %1,92			
Besteak	2 %3,85			
II	----	14 %25,93	11 %15,71	
Aralar-EA	----	2 %3,70	9 %12,85	
LV-GVE	----	1 %1,85	----	

Uhartarakil				
Urtea	2014	2009	2004	
Errolda	658	656	637	
Zuriak	8 %3,43	5 %2,08	2 %0,94	
Baliogabeak	1 %0,43	0 %0,00	51 %19,39	
Abstentzioa	425 %64,59	416 %63,41	374 %58,71	
Botoak	233 %35,41	240 %36,59	263 %41,29	
Alderdiak	Botoak	Botoak	Botoak	
EHBildu	84 %36,21			
PP	52 %22,41	83 %34,58		
EAJ-PNV	24 %10,34	16 %6,67	17 %6,46	
PSOE	15 %6,47	39 %16,25	51 %19,39	
UPyD	12 %5,17	3 %1,25	----	
Podemos	10 %4,31			
I-E	9 %3,88	0 %0	6 %2,28	
Primavera Europea	3 %1,29			
EPDD	1 %0,43			
Besteak	14 %6,47			
II	----	55 %22,92	51 %19,39	
Aralar-EA	----	29 %12,08	35 %16,51	
LV-GVE	----	1 %0,42	1 %0,38	

Arruazu				
Urtea	2014	2009	2004	
Errolda	90	97	88	
Zuriak	0 %0	0 %0,00	0 %0,00	
Baliogabeak	1 %2,04	0 %0,00	9 %16,07	
Abstentzioa	41 %45,56	41 %42,27	32 %36,36	
Botoak	49 %54,44	56 %57,73	56 %63,64	
Alderdiak	Botoak	Botoak	Botoak	
EHBildu	34 %70,83			
EAJ-PNV	5 %10,42	7 %12,50	5 %8,92	
Podemos	4 %8,33			
PSOE	1 %2,08	3 %5,36	2 %3,57	
UPyD	1 %2,08			
PP	0 %0	6 %10,71	9 %16,07	
Besteak	3 %6,25			
II	----	24 %42,86	9 %16,07	
Aralar-EA	----	15 %26,79	30 %53,57	
LV-GVE	----	1 %1,79	----	





## SAKANA

## Puntako ikasleak ditugu

**Alex Costak, Marina Arbizuk eta Leire Lizarragak ohorezko matrikula lortu dute Batxilergoko 2. mailan**

Altsasuko Aralarko Mikel Donea Institutuko hiru ikasleak ohorezko matrikula lortu dute Batxilergoko 2. mailan: Alex Costak Batxilergo Zientifikoan eta Marina Arbizuk eta Leire Lizarragak Gizarteko Batxilergoan. Hiruek 2. mailan 9ko batez bestekoa lortu dute. Halaber, Leire Lizarragak jasoko du Gura-

so Elkarteak espediente onenari ematen dion 200 euroko saria. Bere batxilergoko (2 mailak) batez bestekoa 9,21 da.

Araudiaren arabera Batxilergoko 2. mailako kasuan 9ko batez besteko nota izan behar dute, eta ikasle kopuruagatik institutuak gehienez lau matrikula emateko aukera du. Lortutako merezimendua ikaslearen espedientearen jaso geldituko da. Ikasleek ez dute zuzeneko sari

ekonomikorik jasoko, baina unibertitate publikoetan aurreneko urteko matrikula doan dute.

Halako espedientearen dute ikasleak Nafarroako Batxilergo Sari Berezira aurkeztu daitezke eta ikastetxetik jakinarazi digutenez hala egingen du Leire Lizarragak. Hainbat proba egin beharko dira sari hori eskuratzeko. Nafarroan aipamena lortzen dutenak estatukoan parte hartzeko aukera dute.

## Etxarri Aranatz

## Denok Euskal Jaira!



Ibarreko makina bat dantza taldeetako dantzariak emanaldia eskainiko dute.

**Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak egitarau polita prestatu du biharko**

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta, bihar Euskal Jaia ospatuko dute Etxarri Aranatzen. Horretarako Etxarri Aranazko Udalaren eta Xapatero, Larraza, Lekuona, Iratxo, Derry eta Iturri Eder tabernen laguntza izan du Gazte Asanbladak. Urtertik urtera arrakasta gehiago du festak, eta Etxarri Aranatzen gorriz markatuta dagoen egunetako bat bilaka-

tu da. Etxarriar asko baserritarrez jantzita aterako dira festa ospatzera eta goizetik aurrera egonen da zertaz gozatu: azoka, herri kirolak, dantzariak, bazkaria, bertso poteoa eta kontzertuak.

**Euskararen aldeko argazki erraldoia**

Euskal Jaia antolatzen dela aprobetxatuta, Etxarri Aranazko euskalgintzak -Etxarriko Euskara Batzordea, Udalerri Euskaldunen

## Etxarri Aranazko Euskal Jaia

**Larunbatean**

**11:00etan** Herri mugimenduen azoka.  
**12:00etan** Auzeo arteko herri kirolak.  
**13:00etan** Dantzari txiki eguna.  
**14:30ean** Bazkari herrikoa.  
**17:30ean** Bertso poteoa: Eneko Lazkoz, Jokin Uranga eta Unai Gaztelumendi.  
**22:00etan** Kontzertuak: Arkada Social, McOnak eta Cajon Prieto y los kuajolotes.

Mankomunitatea, Etxarriko Euskal herrian Euskaraz eta Etxarriko Gazte Asanblada-deialdia egingen die etxarriar guztiak, 14:15ean udaletxearen azpian aterako den argazki erraldoian parte har dezaten. "Argazki erraldoiaren bidez, batetik, aldarrikatuko dugu Etxarri euskararen arnagune dela, eta arnagune izaten segi dezan behar diren baliabideak egotea beharrezkoa dela. Bestetik, babesa emanen diogu ekainaren 14an Tolosan UEMAK antolatutako Udalerri Euskaldunen Egunari eta leloari: "Eltzetik eta altzotik euskaraz gara" adierazi du Etxarri Aranazko euskalgintzak.

## Altsasu

## Garraxi irratiak (101,9 FM) bere eguna ospatuko du

**Larunbatean, 16:00etatik aurrera, Altsasuko gaztetxean**

Altsasuko Garraxi Irratiak (101,9 FM) edo myradiostream.com/garraxi bere eguna ospatuko du bihar. Halaber, Checkpoint 2. urteurrena ospatuko dute. Arratsaldean hasi eta ordu txikietara arte, egonen da zertaz gozatu. Tailerrak, zuzeneko ikuskitzuna, pintxo-potea eta DJ-en kontzertuak izanen dira, besteak beste. Tartean dokumental baten aurkezpena egingen dute, Zintzilik Irratiaren 25. urteurrenaren.

Garraxi Irratiak (FM 101,9) zuzeneko hiru saio ditu. Asteazkenetan, 18:00etan, hip-hop musika eta elkarrizketak eta beste eskaintzen dituen saioa dago. 20:00etan, berriz, ildo anarkistatik kontrainformazioa jorratzen duen saioa aireatzen da. Ostiral gauean, berriz, hainbat dj-k zuzeneko saioa egingen dute Garraxi irratiaren.



Garraxi irratiaren emisioan. ARTXIBOA

Hiru saio horien berremisioak emanaldiaren hurrengo egunean entzuteko aukera dago.

Baina horiek ez dira Garraxi Irratiak (FM 101,9) berremisio bakarrak. Astegun goizetan Euskalerrria Irratia, Hala Bedi Irratia, Eguzki Irratia eta Beleixe Irratiaren

## Egitaraua

**16:00etan:** Hasiera ekitaldia: antzerkia, musika...  
**17:00etan** Tailerrak (Irratia... Ableton Live). Zinema emanaldia (Irratiak Piratak).  
**18:00etan** Dokumental aurkezpena. 25 urte zintzilik irratiak.  
**19:00etan** Pintxo-potea. DJ Aitor KGB (Rap-Reggae), Negritosacapie (Araia), Team Rocker (Iruñea), Streetdance. Argazki eta dokumentalen erakusketa.  
**24:00etan** DJak: Txen, Letxu, DZergy, Rail, Gordon, Loksea eta Green Sound Sistem.

## Aukera

Saioa egin nahi dutenek asteazkenetan Irratiaren egiten den bilerara joan edo irratiako kide-ekingarraxi@sindominio.net e-posta bidez jarri daitezke harremanetan.

(FM 107,3) saioen berremisioa egingen du Altsasuko irrati libreak. Gainontzekoa musika eskaintzarekin osatzen du.

## Iruztzun

## Inasako buruen kontrako kereila aurrera

**Epaileak iruzur delituri dagoen ikertuko du. Langile ohiek dokumentuak faltsutzea, eta zigortzeko moduko kaudimen gabezia delituak ikertzea eskatu zuten**

Iruñeko Instrukzioko 3. epaitegiak Inasako 120 langile ohiek enpresako buru izan zirenen kontrako jarritako kereila onartu zuen. Pasa den asteazkenean izan zen. Bavaria Industrial Kapital AGeko (Baikap) administrazio kontseiluaren (Harald Ender, Hans Magnus Andresen eta Wolfgang Lichtenwalder) eta zuzendaritzaren (Santiago Gonzalez Berganzones) kontrako kereila kriminalak, beraz, bidea egingen du, hala "zehaztuko da ustezko delitu eta haien egileen errealitatea eta ardurara, edo, hala badagokio, eskaera baztertuko da".

## Arbizu

## Izartelek telefonia eta Internet eskaintza berria aurkeztu du

**Udalak telefonia enpresaren kudeaketa Knet enpresaren esku utzi du**

Telekomunikazio enpresa handiekin lehiatzea zail zuen Arbizuko Udalaren telefonia enpresak. Lehiakortasun handiko merkatu horri aurre egiteko Arbizuko Udalak erabaki du bere telefonia enpresaren, Izartelen, kudeaketa beste enpresa bati ematea. Errioxako Knet-ek hartu du kudeaketa bere gain eta bera lehiatuko da enpresa handiekin. Knet-eko ordezkariak aste honetan tarifa eskaintza berriaren aurkezpena egingo dute Arbizun, Ergoienan eta Etxarri Aranatzen; Izartelek zerbitzua eskaintzen duen hiru udalerrietan hain zuen ere. Arbizuko enpresak telefonia eta Interneta etxean eta mugikorrean eskaintzen ditu hilero 36,30 eurotik (BEZ barne) aurrera.

## INFORMAZIORAKO

902 449 090 telefonora hots egin behar da edo Arbizuko udaletxetik pasa behar da.

## Altsasu

## Asturies eguna gaur gaztetxean

**Gaur, ostiralean, 19:00etatik aurrera**

Asturies ezagutzeko aukera izango dugu gaur Altsasun. Gaztetxeak Asturiesi buruzko hitzaldia, afaria eta Asturieseko Skontra taldearen kontzertua hartuko ditu gaur. 19:00etan hitzaldia izanen da: "Asturies, lucha obrera, lengua asturiana, izquierda soberanista y espacios autogestionados" lelopean. Asturies gertuago ezagutu ondoren, 21:30ean afaria izanen da (5 euro). Afariandoan, 23:00etan, Skontra punk-folk talde asturiarra oholtza gainera igoko da.

## Altsasu

## Sei taberna, zazpi pintxo

**Bigarren Pintxo Asteburua antolatuko du Xurru elkarteak**

Aurreko asteburuan bezala, gaurtik domekarabitarrean Xurru Alde Zaharreko elkarteak kide diren tabernetan pintxo bereziak dastatzeko aukera izanen da. Lurrazpi tabernak bi pintxo eskaini ditu etabana Urtzin, Xumen, Gautxorin, Arkangoan eta Koxkan. Tamaina txikiak gutuziak dastatzen dituztenek sarienezoz ketan sartuko dira. Batetik, taberna bakoitzean afari bat zozketatuko du Xurru eta, bestetik, eskuz banakako finalerako bi sarrera pertsona batendako.

## Ospa mugimenduak Herri Ostiralak sustatu ditu

*Herri Ostiralak, elkartzu errepresioa gaituz izendapena eta leloa eman die Ospa mugimenduak hileko azken ostiralei. "Herriak jasaten dituen neurri gabeko isun politikoei aurre egiteko" ekimena da Osparena. Mugimendutik jakinarazi dutenez, azken hiru urteetan 21.000 euroko balioa duten isunak jasotuzte altsasuarrek, "krisi garaian jarritako isun ekonomikoak herri mobilizazioak zigortu, isilarazi eta desmobilizatzeko". Herri Ostiralen barnean mobilizazio bat etadirua biltzeko ekitaldi bat egingen da. Apirilaren 25ean egin zuten lehena eta orduan afaria izan zen.*

## 68 KONTROL

Horiek zenbatu dituzte Ospa-ko kideek urteko lehen hiru hilabeteetan. 52 Guardia Zibilak egin zituen eta 16 Foruzaingoak.

## SAKANA

## Orreaga fundazioaren Elkarte Eguna hartuko dute 3 elkarteak

**Iruztzungo Iratxon, Iturmendiko Aitzkoarren eta Altsasuko Zubi Ondon ekitaldiak antolatu dituzte**

Orreaga fundazioak antolatutako Elkartearen eguna Sakanan ospatzen ari da aurten, hiru elkartetan: Iruztzungo Iratxon, Iturmendiko Aitzkoarren eta Altsasuko Zubi Ondon. Batetik, hitzaldi zikloa dago. Azken hitzaldia gaur izanen da, 19:30ean, Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Joseba Asiron eta Tomas Urzainki historialariek "Crisis institucional en Nafarroa. Fueros y Gamazada" hitzaldia eskainiko dute. Biharko ondoko egitaraua prestatu dute: 10:30ean Iruztzunen hamaiketako, joku herrikoia, kantuak, trikitixa eta beste, 13:00etan, Iturmendin, hamabietakoa, kantuak eta trikitixa. Eta 14:30ean, Altsasuko Zubi Ondo elkartearen herri bazkaria (12 euro), triki-kantua eta Erriberako Ego-Haize eta Beterri elkartearen lekuko ematea. Bukatzeko, 19:00etan kantu poteoa izanen da Altsasun barna.





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 564 355**  
**679 160 116**  
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

## Jexus Lizarraga Lakuntza

Ez dugu inoiz ahaztuko zure irrifar leuna zu baitzaitugu bihotzeko kuttuna. Ez zaitugu inoiz ahaztuko adiskide nahiz laguna agur eta ikusi arte, AITTUNA.

Saioa, Iker, Aintzira, Ekhiñe eta Kimetz



## Manuel Mundiñano Ezkutari

II. urteurrena

Maite ditut maite gure bazterrak, lanbroak, izkututzen zaizkidanean.

**Etxekoak**

Etxarri Aranatzan 2014ko ekainak 3an.



## Jexus Lizarraga Lakuntza

Hosto bat bezala joan zara uda heltzean, gure bihotzean izango zara bizi garen artean.

Zentraleko familia



## Juan Ignacio Erdozia Larraza Fidel Larraza Marin Fco. Javier Guruzeaga Etxarri Felipe Ceberio Maiza

Urtero elkartzen gara eta zuek gurekin egoten zarete. Inoiz ez zaituztegu ahaztuko. **1953. urtean jaiotako kintoak**



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)-era edo hots egin **948 564 275** telefonora

## Oroigarriak



**Guaixe**  
KOMUNIKAZIOA

**948 564 275**



## Jose Marcos Gasanz Villuendas «Pepe»

Ekainak 5, III. urteurrena

Ez zaitugu ahaztuko.

Bere aldeko meza ekainaren 8an ospatuko da, goizeko 11:30ean Urdiaingo elizan.

**Zure emaztea eta alabak**

# guaixe.iragarkilaburrak.com

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

### GALDUTAKOAK

**Samsung telefono mugikorra.** Galdu da Etxarri Aranatzan. Opatu duenak, mesedez, Guaixera eraman edo hots egin dezala, telefonoa 948 56 42 75.

### Ikastaroak

**AES.** "Enpresa ingelera II", Arbizon, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizon, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizon, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizon, 30 ordu, iraila-urria; "ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak", Arbizon, 35 ordu, ekaina; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta [formacion@aesaka-](mailto:formacion@aesaka-)

an, arratsaldeko 20:00etan Urdiaingo Aitziber elkartearen aurkeztu beharko dira. Juntarekin harremanetan jartzeko eta informazioa eskatzeko ondoko eposta erabili behar da: [aitziberelkartea@gmail.com](mailto:aitziberelkartea@gmail.com)

**Lizarragako elkarteak alokatzen da.** Lizarragako San Adrian festetan, ekainaren 14an, 15ean eta 16an, "Aziturri Txokoa" elkarteak alokatuko dugu. Ekainaren lehen arratsaldeko 18:00etan enkantea egingen dugu. Gutxieneko alokairua 600 €koa izanen da.

### Opatutakoak / Galdutakoak

**OPATUTAKOAK**  
**Giltza urdin bat soka urdina duena.** Arbizon opatu da. Galdu duenak Almenteren etxera joan dadila bila.

### Lana/ Negozioak

#### LAN ESKAINTZA

**Begirale bat bilatzen da.** Urdiaingo Udaren Euskaraz kanpainarako. Curriculumak ekainaren 6a arte baino lehen Urdiaingo udalera eraman.

**Arbizuko festetarako aisialdiko monitoreak behar ditugu.** Arbizuko Udala. Curriculumak aurkezteko epea udaletxean ekainaren 6a arte edo [info@arbizu.info](mailto:info@arbizu.info) helbidera bidali.

### Higiezinak

#### LOKALAK

#### ERRENTAN EMAN

**Urdiaingo igerilekuak udan kudeatu.** Nahi dituzten interesatu guztiak ekainaren 6an, ostirale-

Miren Zabala Gorriti, maiatzaren 17an Olaztin.

• Jose Joaquin Ganuza Borrega eta Ainhoa Asurmendi Gorriti, maiatzaren 24an Altsasun.  
• Daniel Dueñas Cabezas eta Amaia Olmedillo Elizondo, maiatzaren 24an Altsasun.

### HERIOTZAK

• Maria de los Dolores Otamendi Senar, maiatzaren 21ean Lizarragan.  
• Maria Cristina Sueskun Etxeberria, maiatzaren 21ean Altsasun.  
• Lazaro Viedma Agirre, maiatzaren 23an Olaztin.

### JAIOTZAK

• Itsaso San Vicente Fernandez, apiribilaren 24an Ziordian.  
• Aimar Vidal Salvador Zambrano, maiatzaren 11n Olaztin.  
• Eritz Mendoza Gallegos, maiatzaren 17an Uharteko Arakilen.  
• Alba Claver Vega, maiatzaren 17an Altsasun.  
• Oihan Palacios Iruñuela, maiatzaren 19an Lakuntzan.  
• Izadi Garcia Gurutzarri, maiatzaren 20an Altsasun.  
• Luken Zabaleta Santesteban, maiatzaren 24an Etxarrenean.  
• Paula Marin Serrano, maiatzaren 26an Irurtzunen.

### EZKONTZAK

• Iñaki Ruiz de Alegria Uribe eta

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

na.com

**Cederna.** Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasun: Zuzenean saltzeko estrategiak,

Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es) - 948 56 70 10.

PILOTA

**ARBIZUK ETA ZIZURREK BERTINDU:** Herrien Arteko 2. mailako 3. jardunaldian, jokatu-tan 4 partidetak 2 Arbizuk irabazi zituen eta

beste bi Zizurrek. Kimuetan eta seniorretan gailendu ziren arbizuarrak eta haurretan eta jubenetan, aldiz, Zizurrekoak.

## Areto futbola

# Futsalsakana Kopa Racing San Migelendako

UHARTEARREK 5-4 HARTU ZUTEN MENPEAN ARBIZU FINAL IKUSGARRIAN

Futsalsakana ligan Arbizuren kontra galdu eta gero, Futsalsakana Kopan Uharthe Arakilgo taldeak errebantxa ederra hartu eta kopa irabazi zuen, ostiralean jokatu-tako emozioz betetako finalean Arbizuri justu-justu 5-4 irabazi eta gero.

Ongi jokatu zuten bi taldeek, kiroltasun handiarekin. Partidak denetarik izan zuten: emozioa, jokaldi ederrak, golak eta tentsio handia. Asier Turunbayk Racin-gen markagailu mustu zuen baina Arbizuko Xabik berdintzea lortu zuen. Danielek bi gol sartu eta gero,

atsedenaldira 3-1eko abantailarekin joan ziren Racingekoak.

2. zatia hasi eta berehala Arbizuk hiruna berdintzea lortu zuen Julenen bi golei esker. Mikelek Racing aurreratu zuen eta Arbizukoak jokalaririk gutxiagorekin geratu ziren, baina ez ziren kikildu eta Julenek launako berdinketa lortu zuen. 18. minutuan Ibanek Racin-gen aldeko 5-4a sartu zuen. Arbizuk berdinketa eskutan izan zuen baina markagailua ez zen mugitu eta uharterek jaso zuten Kopa.



Bi finalistak jasotako trofeoekin. FUTSALSAKANA

&gt;&gt;

## Imanol, entrenatzaile onena

Ekainaren 28an jasoko du saria

Areto Futboleko Estatuko Elkar-teak Magna Xotako entrenatzaile Imanol Arregi izendatu du gizon-zkoen lehen mailako entrena-tzaile onena. Entrenatzaile irur-tzundarrak ekainaren 18ko sari ematean jasoko du sari preziatua. Aurreko urtean ere Espainiako Entrenatzaileen Komiteak banatzen duen sari hori jaso zuen Imanol Arregik. Zorionak!

Rafa Usinek Xota utziko du

Irurtzongo klubean ia 8 urte eman ondoren, 27 urteko Rafa Usin madrildarrak agur esango dio Xota klubari, "bere etxea" dena-



ri. Triste doala adierazi du hegal-eko jokalariek, baina, aldi bere-an, ilusioarekin dagoela, ibilbide berria hasiko baitu. Liga bukatu arte ez du egiaztatu nahi, baina bere ibilbidea Bartzelonan jarraituko duela aurreikusten da.

## Mendi lasterketak



Ander Unzurrunzaga Etxarriko mendi igoeran.

# Unzurrunzaga lehen sakandarra Zegaman

Sakandarrak 13. Zegama-Aizkorri mara-toian (42 km):

1.	Killian Jornet	3:48:38
78.	Ander Unzurrunzaga	4:46:16
106.	Jose Javier Maiza	4:53:50
123.	Beñat Katarain	4:59:42
125.	Juanjo Goikoetxea	4:59:56
164.	Aritz Munarriz	5:12:51
246.	Alatz Agirre	5:39:57
252.	Fernando Igoa	5:41:40
371.	Iban Verdugo	6:39:43
419.	Jose Antonio Salgado	7:02:52

Zegama-Aizkorri junior Trail (10,4 km):

1.	Abel Cuadrench	48:08
29.	Kepa Paniagua	1:02:25

Euria, hotza, lokatza eta lainoa izan ziren 13. Zegama-Aizkorri mendi maratoian nagusi. 463 korrikalari iritsi ziren helmuga-ra, eta guztiek jaso zuten mendi magalak bete zituzten zaleen babesa. Sancti Spiritu jaitsieran, Killian Jornetek atzean utzi zituen Marco de Gasperi eta Aritz Egea, eta bere 7. garaipena lortu eta 3:55:00ko errekorra guztiz apurtu zuen, sei minututan onduz (3:48:38). Bi minutuko alde atezion Marco de Gasperi bigarrenari (3:50:38). Lehendabiziko laurak lortu zuten aurreko errekorra gainditzea. "Aspalditik nuen helburu hori. Lasterketa oso lehiatua izan da, eta oso pozik nago. Giroa eta ikusleak, betiko moduan, ikusgarriak izan dira. Zegama Zegama da" aipatu zuen

## Euskal Herriko Mendi Erronka Sakanatik

Larunbatean goizeko 8:00etan Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa luzea abiatuko da (65 km), Leizatik. Proba Arakilgo San Migel santutegira iritsikoda, eta Irumugarrieta izanen da mendirik gorena (1.431m). Informazio gehiago: [www.ehmendieronka.com](http://www.ehmendieronka.com) web gunea.

Jornetek. Emakumezkoetan Stevie Kremer izan zen lehena (4:46:43).

**Sakandarrak**

Ander Unzurrunzaga korrikalari beterrano etxarriarra izan zen lehen sakandarra. 78.a izan zen helmugan (4:46:16). Gainontzeko 8 sakandarrek ere lan bikaina egin zuten. Aipatzekoa da ere sakandar asko joan zirela proba zuzenean ikusi eta korrikalariak animatzera.

**Kepa Paniagua, junior trailan**

Juniorrek Zegama-Aizkorri junior trailan parte hartu zuten (10,4 km). 39 korrikalarien artean Abel Cuadrench izan zen azkarrena (48:08). Kepa Paniagua urdiaindarra 29.a sailkatu zen (1:02:25).

## Pilota

# Irurtzongo 22. Pilota Txapelketa: azken txanpa

Final laurdenen eta final erdien partidak daude jokoan

Apiribilaren 17an hasi zen Irurtzongo 22. Pilota Txapelketa-Lac-turale Saria. Guztira 100 pilotari baino gehiago lehiatuko dira. Asteburu honetan kategoria batzuetako final laurdenak egonen dira jokoan eta beste kategoria batzuetako final erdien txanpa hasiko da.

## Asteburuko partidak

**Maiatzak 30, ostirala (18:00etan Irurtzunen)**

**Benjaminak (final erdiak)**  
Larramendi-Zubizarreta (Lapke) / Migeltorena-Rivas (Lagunak)

**Kadeteak (final laurdenak)**

Garcia-Cordon (Oberena) / Etxeberria-De la Cruz (Irurtzun)  
Zubizarreta-Aizpuru (Lapke) / Antso-Eskiroz (Zugarralde)

**Gazteak**

Zudaire-Ustarroz (Irurtzun) / Okiñena-Irurita (Oberena)  
Espinal-Mariezcurrera (Irurtzun) / Petit-Altzuarra (Titin)

**Ekainak 1, igandea (10:00etan Irurtzunen)**

**Kimuak (final erdiak)**  
Mendibe-Igoa (Ardoi) / Orbegozo-Unanue (Añorga)  
De la Fuente-Azpiroz (Irurtzun) / Imaz-Imaz (Aldabide)

**Kadeteak (final laurdenak)**

Oiarbide-Alberdi (Andoain) / Marcos-Ruiz (Titin)  
Beraza-Agirre (Irurtzun) / Salaberria-Etxeberria (Erreka)

**-Ekainak 3, asteartea (18:00etan Irurtzunen)**

**Gazteak (final laurdenak)**  
Laso-Martija (Huarte) / Egiguren-Erauskin (Zazpi iturri)

**Seniorrak (final laurdenak)**

Armendariz-Mitxelena (Irurtzun) / Ojuel-Lizeaga (Hernani)  
Ezkurdia-Irafieta (Irurtzun) / Urbieta-Errazkin (Bear Zana)

**AURREIKUSPENAK PENTSUGINTZAN KONPROMEZU BERRIAK HARTU DITUGU**  
Genetikoki eraldatutako lehengainik ez erabiltzea

- Elikatze segurantzeta eta arreta beharrezkoa delako
- Kutsadura genetikorik ez dugulako sortu nahi
- Nekazari txikien eta herrien biziraupenaren alde gaudelako

**PRODUKTU OSASUNGARRI ETA IRAUNKORRAK NAHI DITUGU!!!**  
Zatoz guregana

**Unamuno**  
Ondarria Industrialdea z/g · Altsasu  
unamuno@piensosunamuno.com  
948 562 829 · Faxa: 948 563 002

**NEREA**  
ILEAPAINDEGIA

**NEREA BAKAIKOA.**  
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaidea)  
**LAKUNTZA.** TFN:948 576 331

**xapatero taberna**

**948 460 162**  
**Etxarri-Aranatz**

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**  
**Berria erosi taldea**

&gt;&gt;

## Armendarizek Ongayri irabazi zion Openeko txapela

Ostiralean Nafarroako Buruz Buruko Openeko finala jokatu zen Arrotxapeako frontoian. Irurtzun klubeko bi pilotari lehiatu ziren, Alberto Ongay satrustegierra eta klub bereko Armendariz. Larraundarrak irabazi zion Alberto Ongayri, partida oso estuan (18-14).



## Futbola

Etxarriko jubenilek  
igoerari agurCorellanoren kontra 4-3 galdu  
ondoren, aukerarik gabe daude

Jubenilen bigarren mailatik lehen mailara igotzeko faseko 5. jardunaldian, Corellanok 4-3 irabazi zion Etxarri. Egun, Agoitzek 10 puntu ditu, Ardoik 9, Corellanok 7 eta Etxarri 2. Igoera faseko azken partidaren, Etxarri Aranatzek Zizurko Ardoi hartuko du larunbatean, 18:00etan, San Donato zelaian. Zizurko Ardoi igoera du jokoan, eta Etxarri, aldiz, ez du aukerarik. Hurrengo denboraldian 2. mailan jarraituko dute etxarriarrek. Hala ere, igoera faseagarai penarekin despeditzea nahiko luke etxarriarrek.

ERREGIONALEKO KOPAN  
ETXARRI ETA LAGUN ARTEA  
B AURRERA

Kopako final hamaseirenetan Lagunak B-ri 0-2 irabazi zion Etxarri eta Lagun Arteak B-k 5-2 irabazi zion Huracani. Final-zortzirenak ekinaren 7an eta 8an jokatu dira. Etxarri San Andresen kontra jokatu du eta Lagun Arteak B-k Milagres eta Murioren arteko irabazlearen kontra.

## Arrantza

Hiru kiloko  
amurraina eskutan

Pasa den ostegun arratsaldean ahi handiarekin arrantzan zebilela Jorge Rivero Urteagak 3 kiloko eta 60 cm luzeko amurraina atera zuen ibaitik. Pozik joan ziren etxera bi anaiak. Labean prestatuta dastatu zuten arraina.



Jorge Rivero, amurrariarekin.

## Atletismoa



Ziordiarrek herrian korrika egiteko aukera izango dute.

Igandean I. Herri Krosa  
hartuko du Ziordiak12:00etan abiatuko da 6,8 km-ko  
proba. 11:00etan kategoriatxikikoen lasterketak jokatu dira

Running Ziordia taldea buru-belarri lanean dabil igandean jokatu den I. Ziordiko Herri Krosa antolatzeke. Korrikalariak hiru itzuli eman beharko dizkiote Ziordian barna prestatu duten zirkuituan, guztira 6,8 km osatzeko. Proba Sakanako Atletismo Koparako baliagarria izango da. Aurretik, 11:00etatik aurrera, kategoriatxikikoen probak jokatu dira.

## Izena ematea, dohainik

Aurretik [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web gunean edo igandean 10:00etatik 11:00etara, Ziordian.

## Elikagai Bankurako jakiak jasoko dira

Nafarroako Elikagai Bankuaren dako jaki bilketa egingen dute antolatzaileek.

19 emakume  
korrikalari

## Mankomunitateak antolatutako emakumeen atletismo eskola despeditu da

Sakanako Mankomunitateak Altsasuko Dantzaleku atletismo pistan antolatutako emakumeen atletismo eskolak maiatzaren 23an esan zion agur denboraldia-ri. Bigarren urtez jarraian Mikel Lakuntza irakaslearen gidaritzapean oso gustura aritu dira eskolan izena eman duten 19 emakumeak, ostiralero lanean. Helburua atletismoaren inarrizko teknikak ezagutzea eta ikastea izan da. "Aurten 19 partaide izan dira eta ia zko partaidetza onaga inditu da. Hurrengo ikasturterako ikastaroa luzatzeko proposamena jaso dugu eta aztertuko dugu" adierazi du Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Andra Mari ikastolaren  
alde, korrika

105 BIKOTEK EMAN ZUTEN IZENA I. BINAKAKO LASTERKETA-NAPARPELLET SARIAN

Kirolzaletasuna eta elkartasuna bultzatzea izan zen igandean Etxarri Aranatzeko egindako I. Binakako Lasterketa-Naparpellet sariaren xede nagusia. Lasterketa herrikoia eta edonork izen emateko aukera zuena, eta era berean, Andra Mari ikastolaren aldekoa ere bai. Haurrek helduekin batera korrika egitea zen erronka eta 105 bikotek eman zuten izena. Gurasoek euren seme-alabekin eman zuten izena, edo lehengusuen arteko lasterketak ikusteko aukera ere izan zen eta lagun artekoak ere bai. Oro har, lasterketa jendetsua eta jai giroan egindakoa izan zen, ez bakarrik korrika egitera animatu zirenen artean, baita bertaratu eta lasterketa ikusi eta animatzera joan

zirenen artean ere.

**Adin guztietarako lasterketak** Guztiek parte har zezaten, 5 maila desberdin egon ziren: Haur Hezkuntza (200 m), hau da buelta erdia plazari, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak (400 m), alegia, buelta oso bat plazari, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak (800 m) bi buelta eman eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak (1200 m), eta azkena, 12 urteko gorakoen maila (1280 m), eskola berrira joan etorria egin zuten.

Auzate batekin eman zioten amaiera ospakizunari. Antolatzaileak kontentua jendearen parte hartzearekin. Euriak, gainera, goiz osoan eutsi egin zion eta horrek bultzatu zuen jendea kalera ateratzera.



Txikiak eta helduak gustura aritu ziren korrika. MAIALEN HUARTE ARANO

## Irristaketa

## 6 sakandar Espainiako Zirkuituko Irristaketa Txapelketan

Iruñeako Antoniuttik Espainiako haurren eta jubenilen mailako Irristaketa Abiadura Txapelketa eta kimuen Espainiako Kopa hartuko du larunbatean 16:00etan eta igandean 10:00etan. Sakana Irristaketa Klubetik Nafarroako Txapelketan aurkeztutako 7 irristalarietatik seik lortu zuten Espainiako Txapelketan egoteko txartela. "Denboraldian barna egindako lan handiaren isla da Espainiako Txapelketetarako tokia lortu ahal izatea" adierazi du Juli Acebes entrenatzaileak.



Sakana Irristaketa Taldeko kideak.

**TxikiTxo**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialeku 2 · ALTSASU

**Igoa**  
arroiendegia

948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxarri Arantz

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA

*Zatoz gure ardotegia ezagutzera!*

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279  
[hijosdegoikoetxea@yahoo.es](mailto:hijosdegoikoetxea@yahoo.es)

## Automobilismoa

# Villares eta Blas nagusi II. Olazti-Urbasa Rallysprintean

IBAN LOPEZ DE GOIKOETXEA IZAN ZEN LEHEN PILOTU SAKANDARRA (10. POSTUA) ETA JAVIER GOIKOETXEA LEHEN KOPILOTU SAKANDARRA (2. POSTUA). LASTERKETA BEHAR BAINO LEHENAGO DESPEDITU ZEN, RALLYS-PRINTETIK APARTE GERTATUTAKO ISTRIPU BATENGATIK

Sakana Motorsportek eta Nafarroako Automobilismo Federazioak larunbatean antolatutako II. Olazti-Urbasa Rallysprintan parte hartzeraz 30 auto aurkeztu ziren. Zaleak ere poliki hurbildu ziren, baina aurreko urtean baino motorzale gutxiago bildu ziren Olaztin. 13:00etan itxi zen errepidea eta lasterketa 15:30ean abiatu zen.

## Istripua

Antolakuntzak Olaztikoherrigunetik abiatu, Urbasako Altamirarainoigo eta Altsasuranzko bidetik jaisten zen 5,5 kilometroko zirkuitua prestatu zuen, bidegurutzek, aldapa, espalo, rasante eta chicanez beteta. Ibilbideari 4 itzuli eman behar

## Zozketako sarituak

Rallya jarraitzeragerturatu ziren zaleen artean Altsasuko Iru-bide jatetxean eta Arbizuko Olaztean 2 lagunendako 2 bazkari zozketatu ziren. Ondoko zenbakiek lortu dute saria: **00603** eta **01502**. Sarituak jar daitezela Guaixeko bulegoarekin harremanetan (948 564 275).

## Pilotu sakandarrak txukun



II. Olazti-Urbasa Rallysprintean Martin Villares eta Andoni Blas (Renault Clio) izan ziren azkarrenak (14:00.700), Juan Jose Sanz pilotuari eta bere kopilotu Javier Goikoetxea sakandarrari (Renault Clio Sport) 20 segundo atereaz (14:20.400). Iban Lopez de Goikoetxea pilotu olaztiarra izan zen lehen sakandarra, Lander Mella kopilotuarekin (Renault 5 GT Turbo). 10.ak sailkatu ziren (15:19.200). Biek Juan Manuel Herrero "Zapa" artista altsasuarra egindako II. Guaixe Saria jaso zuten. Gainontzeko sakandarrak dagokienez, Arkaitz Irigoien-Oier Larrañaga (Citroën AX) 12.ak sailkatu ziren (15:29.500), Andoni Lopez de Sabando-Ekaintz Jarones (Peugeot 205 GTI) 15.ak (15:49.400) eta Aitor Fernandez-Eneriz Besga (Volkswagen Golf) postu berean (15:52.900). Egoitz Koroso pilotuarekin kopilotu lanak egin zituen Iñaki Gastaminza 6.a izan zen (Renault Clio Sport, 15:02.900) eta Isaak Zurbanorekin aritu zen Iker Azkargorta 11.a (Opel Kadett GSi, 15:25.800). Gariokitz Floresek eta Iñaki San Migelek (Mitsubishi Lancer EVO VI) ezin izan zuten parte hartu turboarekin arazo bat izan zutelako. Bestalde, larunbatean I. Arronizeko rallysprinta jokatu da. Oier Larrañaga-Arkaitz Irigoienek, Iban Lopez de Goikoetxea-Jabi Goikoetxeak eta Aitor Fernandez-Iker Azkargortak hartuko dute parte, azken bi hauek I. RAC Vasco Navarro Koparen barruan.

izan zizkioten autoek. Proba behar baino lehen despeditu zen, 4. eremuko azken txanpajokatzen arizela, rallysprintetik aparte istripu bat gertatuzelako. Urbasako portua igotzen motorzale batek istripua izan zuen eta ezpondan erori zen. Bertara

joan behar izan zuten erreskatatze- eta lasterketa moztu behar izan zen. 4 auto geratzen ziren proba bukatzeko eta antolakuntzak proba bertan behera uztea erabaki zuen eta 4 ibilgailuei denbora neutroa ematea.

## Botxa

## Iratxo Botxa Txapelketa jokoan

Aurrera darrai Iratxo Botxa Txapelketa. Petanka antzeko joko tradizional honetako txapelketarako 8 taldek eman dute izena. Asteburuan 4 partida hartuko ditu Iratxo elkarreko botxategiak.

## Asteburuko partidak

## Ostiralean

**19:00etan:** Tirillas / Lirainak  
**20:15ean:** Alejandro-Guillermo-Iñigo / Erik-Agustino-Xabier Larunbatean  
**19:00etan:** Tximeleta / AHTrick ez  
**20:15ean:** Xabier-Felix-Migel / Desesperados

## Sokatira

## Andra Mari eta Putterri Nafarroako txapelketan

Larunbatean txapelketako azken jardunaldia hartuko du Lesakak

Larunbatean Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketaren 3. jardunaldia hartu zuen Berriozarrek. Kadeteen mailan (285 kilo) Ultzama izan zen onena, Andra Mari ikastola, Berriozar eta Andra Mari ikastolatik sortutako Putterri taldearen aurretik. Saikapenean Ultzamak 12 puntu ditu, Andra Mari 9, Berriozarrek 6 eta Putterrik 3. Txapelketaren azken jardunaldia larunbatean jokatu da, 18:00etan, Lesakako pilotalekuan.

## Duatloia

## San Juan Duatloia Igor Floresendako

Sakana Triatloi Taldeak primerako lana egin zuen eta 3 sakandar sailkatu ziren lehen hamarren artean

Igandean Iruñean jokatu IX. San Juan Duatloia Sakana Triatloi Taldeko Igor Floresek irabazi zuen (58:36). Minutu pasako alde aterazion Alberto Diaz bigarrenari (59:14). 83 triatleta iritsi ziren helmugara, 5,2 km korrika, 19 km bizikletan eta 2,2 km korrikan egin eta gero. Sakana Triatloi taldekoek lan bikaina egin zuten, Javier Borrega 4.a sailkatu baitzen (59:33), Sergio Garcia de Eulate 6.a (1:00:06), Juan Luis Maiza 11.a (1:01:59) eta Isidro Asurabarrena 17.a (1:04:24).



## FERMIN AZKARGORTA ETA IKER MINTEGI TXAPELDUNAK

IX. San Juan Duatloian Sakana Triatloi Taldeko gazteek primerako lana egin zuten. Kimuetako proba Iker Mintegi altsasuarra irabazi zuen (15:12) eta haurren mutilen proba Fermin Azkargortak (27:04). Maila honetan Unai Villalobos 3.a izan zen (28:07) eta Oihan Perez 7.a (31:08). Emakumeen haurren mailan Leire Maiza 5.a sailkatu zen (31:31). Eta benjaminen mutilen mailan Xabier Borrega 7.a izan zen (9:47) eta Ander Villalobos 9.a (9:52).

## Orientazioa

# Orientazio probatik bote luzera

Eguraldiatik bertan behera geratu zen ikastoletako 185 ikaslerendako prestatutako orientazio proba

Iñigo Aritza, Andra Mari, Paz Ziganda eta Jaso ikastoletako DBHko 2. Zikloko 4. Mailako 185 ikasle aurreko ostegunean Altsasuko frontoian bildu ziren, hurrengo egunean Dantzaleku parajeetatik barna antolatutako orientazio proban parte hartzeko. Ikastola ezberdinetako ikasleak nahasiz taldeak osatu zituzten eta ondoren ezagutza jolasak egin zituzten, elkarren artean ezagutzeko.

Iñigo Aritza ikastolan afaldu eta karaokearekin gau festa egin ondoren, ostiralgoizean Dantzalekun bildu ziren, taldeka orientazio proba-riekiteko. "Den prestatuagenuen, mapak eta iparrorrazak banatuta, ateratzeaz, eta euritan hasi zuen, etengabe. Eguraldiak hala jarraitzen zuenez, pena handiarekin bertan behera utzi behar izan genuen orientazio proba" azaldu du Iñigo Aritza ikastolako Jon Lagosek. Orientazio probaren orde, Altsasuko frontoira jozuten eta euskal pilotako modalitate zaharrena den bote luzea ezagutzeko jardueran murgildu ziren ikasleak. Beste batean behar du izan.



Euren artean ezagutzeko ezagutza jolasak egin zituzten. J. LAGOS

## 129 ikasle Arbizuko orientazio proban



Asteartearen Sakanako eta Aguraingo ikastetxeek Mank-en laguntzarekin antolatutako orientazio proba Arbizuko basoan burutu zen, Zubaat eta Sandindegi aldean, eguraldia lagun. Altsasuko Institutuko 54 ikasle (DBH 4), Aguraingo 40k (DBH4) eta Andra Mari ikastolako 35ek (DBH3) parte hartu zuten. Mapa eta iparrorrazta eskuan, prestatutako probak osatu zituzten.

## Bakaikuko udala

### UE-38B UNITATEA BORONDATEZKO BIRZATIKETA PROIEKTUA. HASIERAKO ONESPENA

Bakaikuko Udalak, 2014ko maiatzaren 15ean egin zen osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea UE-38B unitatea birzaitzeko proiektua, Javier Echeverriak, Mercedes Lopez de Zubiriak eta Ignacio Arduyak sustatua. Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. eta 151. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, espedientearen jenduraren egonen da hoguei egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezzen.

Bakaikun, 2014ko maiatzaren 15ean.

Alkatea, Ion Tabar Cayuela.



BAKAIKUKO UDALA

## Iturmendiko udala

### UE 28B URBANIZATZEKO PROIEKTUA. HASIERAKO ONESPENA

Iturmendiko Udalak, 2014ko maiatzaren 14an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi du UE-28 unitatea urbanizatzeko M.ª Eugenia Goicoechea Azacetak sustatu duen proiektua.

Proiektu hori jenduraren egonen da hoguei egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 134.5 eta 76. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Iturmendin, 2014ko maiatzaren 14an.

Alkatea, Victoriano Gabirondo Lanz



ITURMENDIKO UDALA



## Enduro-BTT

## I. Arbizu Enduro BTT

Igandean, 9:00etatik aurrera Arbizun, txirrindularitza modalitate berriaz gozatzeko aukera

Kirol berri batez gozatzeko aukera izango dugu igandean Arbizun, Sakana Krew BTT taldeak I. Arbizu Enduro BTT proba antolatu baitu. "Modalitate nahikoberria da. Jaz lehen lasterketa egin zen Nafarroan. Baso edo mendian bizikletarekin jaitsierak egitea da kontua" adierazi digu Krew talde antolatzaileko Aritz Etxeberria arbizuarrak.

Arbizun 4 jaitsiera prestatu dituzte, Aralar aldean, Arbizuko trenbidetik aurrera, Mirueta gai-

nan, ia Mezaingo bordara iritsita, borden ibilbideetatik barna, Trosketa iturriraino.

Bertara hurbiltzen diren ikusleek salto, abiadura eta jaitsiera ikusgarriez gozatzeko aukera izango dute. "Ikusgarria izaten da. Ia 100 txirrindularik eman dute ize-na baina guk, arbizuarrak, ezingo dugu aritu, antolakuntza ibiliko gara lanean. Eguraldiarekin kezkatuta gaude. Izan ere lokatza-rekin txirrindulariak ez du berdin gozatzen. Ea proba polita ateratzen den" gaineratu du Etxeberriak.

## 100 txirrindularik 4 jaitsiera



Txirrindulariak igandean goizeko 9:00etan abiatuko dira Arbizuko plazatik, banaka, 20 segunduero. Lehen jaitsiera 9:45ean izango da, bigarrena 11:05ean, hirugarrena 11:50ean eta laugarrena 12:40ean. Txirrindulariek denbora bat izan dute jaitsiera horietara igotzeko, eta gero 4 jaitsierako denborak kronometratuko zaizkie. Jaitsiera guztien denborak kontuan hartuta, azkarrena izango da irabazlea. Proba jarraitzeko toki politenak jaitsierak dira. Antolakuntzak ikusleak kokatzeko guneak prestatu ditu. Informazio gehiago: Facebook (Sakana DH).

## Txirrindularitza

## Nafarroako Erlojupeko Txapelketa Iturmendin

Igandean, 10:30ean kadeteak eta 12:30ean juniorrek jokatuko dute Iturmendi Erlojupeko Trofeoa, Nafarroako Txapelketa

Txirrindulariak banaka-banaka eta gertu ikusteko aukera eskainiko du Iturmendik igandean, Burunda Txirrindularitza Klubak antolatutako II. Iturmendi Erlojupeko Trofeoa baitago jokoan. Kadete eta junior mailetako txirrindulariek hartuko dute parte eta Nafarroako Erlojupeko Txapelketa izango da.

Goizeko 10:30ean abiatuko dira kadeteak (10 km). Iturmenditik Etxarri Aranatzerraino joko dute, han buelta hartu eta atzera ere Iturmendiraino iristeko. 12:30etik aurrera juniorrak ariko dira lanean (14 km). Arbizuko industrialderaino iritsiko dira, atzera ere Iturmendira heltzeko.

## Afizionatuek Nafarroako Itzulia jokoan

Afizionatuek proba garrantzitsua dute hurrengo bi egunotan: Nafarroako Itzulia. Krisiaren eraginez bi etapa izango ditu -urrezko garaietan 6 eguneko lasterketa zen-, baina Union Ciclista Navarra antolatzailea "pozik" agertuta "proba bera antolatu ahal izateagatik". Parte hartuko duten 12 taldeen artean Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarra dago.

Gaur, ostiralean, Iruñeko Industrias Lizartetik aterako da etapa, 15:00etan, eta Villatuertan despedituko da (148 km). Bihar, Lizarrako Suministros Urbasa Monjardinen abiatuko da proba, 14:15ean, eta Iruñean despedituko da (147 km), San Lorenzo elizaren pean.

## Aramendia Euskadiko juniorren erlojupeko txapelketako txapeldunorde



Iturmendiko txirrindularia Diego Lopez txapeldunagatik 20 segundora sailkatu zen Arabako Gopegi herriak Euskadiko juniorren mailako erlojupeko txapelketa hartu zuen larunbatean. Combustibles Galdeano taldeko Diego Lopez lizaratarra izan zen txapelduna (25:06). Bigarrena Burunda Klubeko Quesos Albeniz taldeko Eneko Aramendia iturmendiarra izan zen, txapeldunagatik 20 segundora. Ea igandean bere jaioterrian aurreneko postuetan kusten dugun. Argazkian Aramendia, altuena, bere taldekide batzuekin.

## Triatloia

## Sakandarrak primeran Saloun

Isostar Extreme Man Salou Triatloia Benjumea 20.a izan zen, Borrega 53.a, Garcia de Eulate 56.a eta Lakuntza 281.a

Maiatzaren 15ean Isostar Extreme Man Salou triatloia ikusgarria jokatu zen Saloun. Probako distantziak ez ziren txantxetakoak: 1,9 km igerian, 86 km bizikletan eta 21,1 km korrikari. Ehunka triatletalehiatu ziren eta azkarrena Marcel Zamora izan zen (3:48:04). Sakana Triatloi Taldeko 4 triatleta aritu ziren eta maila bikaina eman zuten: Felix Benjumea 20. Postuan iritsi zen helmugara (4:10:25), Javier Borrega (53.a) (4:19:29), Sergio Garcia de Eulate 56.a (4:20:11) eta Mikel Lakuntza 281.a (4:47:21). Zorionak guztie!

## Felix Benjumea 64.a Biltoko triatloia gogorren

Larunbatean Bilbao Triathlon 2014 proba gogorra hartu zuen Bilbok. Triatletek 1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrikari egin



Felix Benjumea 20.a izan zen Saloun eta 64.a Bilbon.

behar izan zituzten. Probarengogortasunari aurre eginez, 452 triatleta iritsi ziren helmugara, Gustavo Rodriguez buru zela (4:06:47). Emakumezkoetan Maider Gaztañaga nagusitu zen (4:35:52). Sakana Triatloi Taldeko Felix Benjumea altsuarrak lan ona egin zuen eta 64. postuan iritsi zen helmugara (4:47:58), meritu handiko postuan.

## Saskibaloia

## Saskibaloia topaketa Altsasun

Bihar, larunbatean, 10:00etatik aurrera Zelandi kiroldegian

Sakanako Mankomunitateak saskibaloia topaketa antolatu du bihar, larunbatean, Altsasuko Zelandi kiroldegian, neska-mutikoen artean saskibaloia sustatzeko eta ikas-

turtea festa giroan despeditzeko. Bertan, berriki despeditu diren Sakanako Saskibaloia Topaketan parte hartu duten taldeek -Putterri, Beriain, Martinsasti eta Balankaleku- eta ekitaldira hurbiltzen diren guztiek parte hartu ahal dute.

Jokalariguztiekin, denak nahastuta, taldeak osatuko dituzte. Saskibaloiarekin disfrutatuz, egun polita pasatzea da asmoa.

2014 maiatza-ekaina  
30-31-01  
19:00-22:00  
Altsasu

2€ pintxoa SARIK: Sei sari 40€-koak. Afari bat taberna bakoitzean. Eskuz banakako finalerako bi sarrera pertsona batentzat.

PINTXO asteburuak



## Nonerabili

## XAGU

## ALTSASU

%5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

## LIBURUNDA

## ALTSASU

%5eko deskontua papertegia eta irakurketarako liburuetan.

## GOIKO LOREDENDA

## ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan %10eko deskontua (Baratza eta garaiko loreetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria).

## MARI JOSE ILEPAINDEGIA

## ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 25 €.

## FRUITIS FRUTA DENDA

## IRURTZUN

10 €ko gastuarekin 2 boleto zozketarako.

## EROSKI BIDAIK

## ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotel-etako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria

## AMETSA LIBURUDENDA

## ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua jostailu eta puzzleetan.

## LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

## URDIAIN

50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

## LARKA

## ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

## LASTAI GASOLINDEGIA

## ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai





**SANTANO IRUNEAN:** Iruñeko Descalzos kalean dagoen Emagune, Txoko feministan erakusketa ikus daiteke. 10 emakume sortzaileen lanak daude ikusgai 12ra arte. Horien artean dago Helena Santano Cid altsasuarra.

## Sakanako lau talde Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdi Nagusian



**Bihar izanen da, 18:00etan, Burlatako Kultur etxean**

Lakuntzako Luis Fuentes eskolako bi taldek, Lakuntzako Sansaastin musika eskolako taldebateketa Aralarko Mikel Donea institutuko beste talde batek parte

hartuko dute bihar Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdi Nagusian. Eszenatokia beste 13 talde, bikote eta bakarlarirekin partekatuko dute. 137 artista guztira. Guztiek ere euskal kantuek interpretatuko dituzte, aurretik izan diren beste lau jaialdietan bezala. Haieta-

Parte-hartzaileak		
Taldea	Kantua	Egilea
<b>LH2koak (Lakuntzako eskola)</b>	<b>Eskuetan</b>	<b>Pirritx eta Porrotx</b>
Unax Perez, Uxue Ondarra, Leire Urtasun, Aimar Apaolaza, Saioa Cabrera, Maider Miranda, Andrea Lacalle, Ander Cocera, Rajae Gelti, Elayne Valverde, Bakarne Arregi, Nerea Askarai eta Gorka Senar.		
<b>LH3koak (Lakuntzako eskola)</b>	<b>Marikalanbre</b>	<b>Pirritx eta Porrotx</b>
Maialen Ormazabal, Ixone Lakuntza, Maddi Lacunza, Ainhoa Bergara, Izaro Lizarraga, Didac Pino, Izaro Jimenez, Aiora Larraza, Ander Ormazabal, Amin Hamdi, Aitor Auzmendi, Alex Ureña eta Adrian Martinez.		
<b>LH 6koak (San Saastin)</b>	<b>Esaidazu</b>	<b>Hesian</b>
Nekane Mendieta, Ariane Andueza, Iratxe Flores, Irati Tadeo, Munia El marhoum eta Garbiñe Goikoetxea.		
Gitarra elektrikoak: Irati Tadeo eta Munia El marhoum. Pianoa: Iratxe Flores		
<b>Aralarko Mikel Donea I</b>	<b>Ez nazazu iratzar</b>	<b>Lain</b>
Munia El Marhoum (gitarra), Irati Gomez, Oihane Huarte, Ayeisa Moran eta Eva Zulaika		

ko bat, bigarrena, martxoakaberan Etxarri Aranatzan izan zen.

Badira 25 bat urte ekimena martxan dena. Txikien eta gazteen artean kantu-zaletasuna sustatu, euskal kantuek ezagutarazi, norberaren artea erakutsi, jende berria ezagutu eta eszenatokitik

kantatzeko aukera eskaini dute. Nafarroako Kantuzale Elkarteak izanda haiek antolatatu dituen. Baina badira hiru urte diru-laguntzak emateari utzi ziola eta elkarteak kide Amaia Dominguez Gonzalo Tafallako musika irakaslea arduratzen da antolaketaz.

## Egitarau berria mustuko du Erkudengo Amak

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean

Altsasuko abesbatza erreperitorio berria lantzen gogotsu aritu da aurreko hilabeteetan eta ilusioz gainezka iritsi dira hura jendaurrean emateko egunera. Irlanda, Sardinia, AEB, Kuba, Argentina, Venezuela eta Euskal Herriko doinuez osatutako egitaraua prestatu dute biharko. Zazpi kantu berriekin eta Altsasun sekula kontzertuan kantatu ez dituzten beste horrenbeste abes-berriekin osatu dute egitaraua.

Orain arte entsegutan indarra jarri du Inma Arroyo Goikoetxeak zuzentzen duen taldeak. Lana erakusteko zenbait data zehaztuak dituzte: garagarriaren 21ean Dorraon izanen dira, garriaren 7an Urdiainen, agorriaren 4a eta 10 bitartean Ingalaterran hiru kontzertu emanen dituzte, Santa Zezilia eta Eguberri emanaldiak. Hainbat hitzordu lotzear dituzte ere, horien artean nazioarteko beste elkartruke bat, Sardinia-ekin.

## Ijorra eta Hesian-ekoak Euskalerrira Irratiaren aldeko lanean

**Iruñerriko irrati eskaldunaren aldeko CD-DVDA egiteko hura alde aurretik erosiko duten 1.000 lagun behar dira**

Ene Kantak proiektuko kideek haurrendako euskarazko abesti berri eta freskoak sortzen dituzte. Batzuetan herri kantuek moldatu eta gaurkotzen dituzte eta CD batean argitaratzen dituzte. Gainera, haurrek erraz imitatzen moduko koreografiak

asmatzen dituzte eta DVDan jaso. Ene Kantak proiektuko kideek zenbait lan atera dituzte aurretik. Lehenengoaren etekinak Sortzen-i eman zizkioten eta bigarrenekoak Nafarroako Bertsolari Elkarteari.

Hirugarren diskoarekin lortzen diren etekinak Euskalerrira Irratiari laguntzeko izanen dira. 20 kanta berri jasoko dira CD-DVDan. Abestiak sortuak dituzte eta Euskal Herriko makina bat musikari



### CD-DVDA eskuratzeko

[www.verkami.com/projects/9008-1-000-erosle-baitez-eman-bidea-euskalerrira-irratia](http://www.verkami.com/projects/9008-1-000-erosle-baitez-eman-bidea-euskalerrira-irratia)

ezagunek parte hartu dute. Tarte-an daude Igor Ijorra eta Hesian taldeko Zuriñe eta Fran. CD-DVDA egin ahal izateko alde aurretik hura erosiko duten 1.000 pertsona behar dira eta horregatik crowdfunding bidez finantzatu nahi dute.



### Gonbitea

Erkudengo Ama abesbatzak astelehenero eta ostegunero, 22:00etan, entseatzeko du lortia kultur gunean. Kantuzaleek ateak zabalik dituzte, gizonen batez ere.

## bazterretik

Jose Luis Asensio

### Nire laguna Dahmer

Zer pentsatuko zenuke, zure gazte garaiko lagun batek, 17 pertsona hil eta zenbait ekintza higuigarri egin dituela jakiten baduzu? Derf Backderf-ek *Nire laguna Dahmer* idaztea erabaki zuen. Ez da bere asmatutako istorioen antzekoa, bertan, bere gazte garaiko laguna izan zen Dahmer deskribatzen baitu. Ziurrenik oraindik liburuaren berezitasuna ez da argi ikusten, baina jakin ezazue, Dahmer izeneko bere lagunak, heltzean, Milwaukee-ko harakina ezizena irabazi zuela 17 pertsona hiltzeagatik. Eta hilketak ez ziren izan bere gaiztakeria higuigarrienak. Gehiago jakin nahi izanez gero, bilatu interneten, zutabe honetan ez

ditut deskribatuko eta.

Derf-ek, bere gazte garaiko Dahmer laguna hiltzaile bat bihurtuko zenik ez zuen inolaz ere susmatu. Bai, Dahmer-ek bazituen berezitasun eta zailtasun ugari, bere etxean, bere buruan, eskolan... baina hasieratik argi agertzen da komikian, egilearen ustez, Dahmer-ek egin zuena egiteko ez zuela inolako aitzakiarik. Pertsona askok dituzte mundu honetan arazoak eta ez dira hiltzaile bihurtzen. Aldi berean, Dahmer bera baino arraroagoak ziren ikasleak ere baziren beren artean.

Garai hartan, Dahmer-ek hildako animaliak bildu, eskolako ordutan mozkortu, animalien buru-hezurak gorde edo ikastetxeko laborategian kristalezko poteetan gordetzeko zitu-

ten animaliak lapurtzen zituen. Ikasleen artean arraro xamarra zela pentsatzen zuten, baina ez zen inolaz ere, pertsona helduak batez ere, Dahmer-ek nolabaiteko desoreka emozionala zuela buruan. Gero jakin izan zen, Dahmer-en barruan sentimendu homosexualak pizten hasi zirela garai hartan, eta hori, Estatu Batuetako herririk batean ezin izan zuen normaltasunez adierazi. Aldi berean, bere buruan, hildako gizonezkoekin zituen fantasiak, bere desioa errudun sentimendurekin nahasten zuelarik. Eta munduan bakarrik zegoen. Ziurrenik ezer gutxi egin zitekeen bere alde, baina urte haie-tan guztietan pertsona heldu bat beragana hurbildu izan balitz, laguntza behar zuela konturatu eta

gutxienez nolabaiteko kontrola ezar zezaken. Baina ez gurasoek (garai hartan banandu ziren, eta aldi berean Dahmer alde batera utzi), ez irakasleek (ez zuten ezer esaten klasera ez zihoanean edo goizeko zortzietan mozkor eginda agertzen zenean) ez zuten ezer egin, eta bere barruan sentitzen zuen nahastea handituz joan zen, kontrola galdu zuen arte. Komikia, Dahmer atxilotu zutenean egilearen buruan forma hartuz joan zen, baina inork argitaratu nahi ez zuenez, 24 orrialdeko komikia besterik ezin izan zuen ordaindu bere poltsikotik. Hala ere, sariak jaso eta interesa piztu zuenean, lana berregitea erabaki zuen, berak kontatu nahi zuen istorioak 24 orrialde baino gehiago behar zituelako,



eta honela sortu zen *Nire laguna Dahmer*, ia 200 orrialdeko liburu.



# Ustarroz, ikastetxe izandakoan, ikasleei erakusteko

**Eskultureak bere tailerren eginen duenaren lanen lagin bat eraman du**

Iruñeko Arte Eskolak zentroko eskultura zikloko laguntzaile diren enpresen erakusketa prestatu du. Ikastetxeko ikasleak praktikan hartzen dituzten sei enpresaren lanak daude ikusgai erakusketan, horien artean Miren Ustarrozen Harbizi eskultura tailerra. Ikasketak despeditu eta azken proiektua egin aurretik ikasleek praktikak egin behar dituzte.

Uhartearrak esan digunez, erakusketan jarritako piezak ikasleek tailerren egin dezaketenaren lagin bat dira. Alde batetik, hila-

rriak izan daitezkeen eskulturak daude ikusgai Iruñean; maketak eta bolumen txikiko piezak. “Testu-ingurutik kanpo hilarriaren zentzutik ihes egin eta eskultura izan daitezke. Mugako hori gustatzen zait”, esan digu Ustarrozek. Bestetik, errautsak jasotzeko zelulosazko kutxa biodegradagarriak edo pasta zeramikoarekin eginda-

## Ordutegia

**Ostiralean zabaldu zituen atea eta garagarriaren 13ra arte ikusgai izanenda, asteleheneetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara**

koak jarri ditu erakusketan. Azken horiei euskal estetika ematen die.

Gaur egun kutxei bultzada eman nahian dabil Harbizi eskultura tailerreko arduraduna eta horretarako donostiar batekin elkarlanean ari da. Enpresa batendako sariak egin ari da ere. Eta hilarriak eta etxaurreak ere egin ditu. Eguneroko lanak bere proiektuetarako denbora gutxi uzten dio, baina tarteka aritzen da.

## Praktikez

Ustarrozek Arbizun duen tailerretik ikasturtero ikasle bat pasatzen da eta errealitatean egitea tokatu-ko zaizkien lanak eginarazten dizkie (moldeak, margotzea, hila-



rriak...), “lan ez oso zailak, baina txukun egin ditzaketanak”. Aurretik ikastetxeko ikasle izana da eta badaki zertaz ari den. Pasa den urte-

an olaztiar bat izan zuen tailerren eta oso ongi egon zirela azaldu digu. Heldu den hilean aste bat eta gutxi-rako hartuko du beste ikasle bat.

## Parlamentua Bertsolaritza Irakaskuntzan programaren alde

Bertsolaritza irakaskuntzan programa mantendu eta programaren egonkortasuna ahalbidetuko duen moduan finantza dezala eskatu zion Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak gobernuari. Asteartean onartutako mozioak UPNez beste talde guztien aldeko botoa izan zuten. Mozioan ere Nafarroako Bertsotzale Elkarteak 27 urtetan egindako lana eta hark emandako “fruitu ona” aitortzen da. Aldi berean, kezka agertu zuen “ikasketa-eremutik bertsolaritzaren transmisioaren lana desageritzen ahal delako”.

Nafarroako Bertsotzale Elkarteak oso positibo baloratu du Nafa-

rroako Parlamentuak programari eman dion babes. “Finantziario duin eta iraunkorra eta egoera bere onera ekartzeko interlokuzio bideak berriro irekitzea eskatu dizkio atzera ere departamentuari”. Bestalde, azken asteotan ikastetxe, udaletamankomunitate, elkarte, erakunde eta norbanakoengandik “programarako jasotzen ari den etengabeko babes ere eskertu du Nafarroako Bertsotzale Elkarteak.



## Olatzagutiko pintura azkarreko lehiaketan izen ematea zabalik



**Garagarriaren 15ean, domekan, jokatuko da haur, gazte eta heldu mailatan**

Zazpigarren urtez Olatzagutiko Udalak pintura azkarreko

lehiaketa antolatu du. Olazti, herri ingurua eta bertako jendea izanen dira lehiaketako parte-hartzaileen sormenerako gaiak. Hura oiha lera eramateko edozein teknika erabiltzeko aukera izanen dute.

Hiru maila ditu lehiaketak: haurrak (11 urte bitartekoak), gazteak (12 eta 15 urte bitartekoak) eta helduak (16 urtetik gorakoak).

Lehiaketa egunean, 8:00ak eta 9:00ak bitartean (haurrek 9:00etatik 10:00etara), lehiakideek kultur etxetik pasa beharko dute. Margotuko duten bastidorean zigilu bat jarriko zaie. Margolanak bukatu ondoren 17:00etatik 18:00etara aurkeztu beharko dira kultur etxean..

## Izen ematea

Olatzagutiko udaletxean, 948 562 446 telefonoan (astegunetan 10:00etatik 14:00etara) edo kultura@olazti.com e-postan (pintura lehiaketa aipatuz). Haurrek garagarriaren 11ra arteko epea dute izena emateko. Lehiaketaren egunean bertan ere izena eman dezakete gazte eta heldu mailakoek.

## Danborra jotzeko gonbitea

**Batukada tailerren izena emateko epea garagarriaren 20ra arte zabalik dago. Pikuxartik edo kultur etxetik pasa behar da**

Afrikako eta hango erroak dituzten kulturetako herri

ospakizunetan danbor formazioak izan dira beti. Brasildik iritsi zaizkigu batukadak gurera eta harrera ona izan dute. Aurreko asteazken arratsaldean Irurtzunen batukada baten emanaldiarekin

gozatzeko aukera izan zuten plazan elkartu ziren guztiek. Iruñeko Iturruma auzoan Oskar Estangak emandako ikastaroko kideak izan ziren lau pareta artean ikastakoa kalean, Irurtzunen, eman

zutenak. Berriobeitin izan ziren herenegun.

Barazkiguneak eta Kultur Kontseiluak sustatuta, doako batukada ikastaro laburra egingen da Irurtzunen. Bost saio izanen ditu ikastarokoak. Garagarriaren 24an eta 26an eta garilaren 1ean eta 15ean egingen dituzte entse-

guak, 19:00etatik 21:00etara. Atakondoako gimnasioan eta patioan izanen da ikastaroa, Oskar Estanga irakaslearekin. Ikastakoa festetan erakutsiko dute, garilaren 18an. Perkusio formazioaren martxa egokia bada, ikastaro luzeago aukera antolatzea ez dute baztertu Irurtzunen.

## Dantza garaikidearen txanda

Gaur, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Pasa den astean euskal dantzen jaialdi ederra hartu bazuen kultur gune altsasuarrak gaurkoan dantza garaikideko jaialdia hartuko du. Irantzu Gonzalez Azpirozekin ikasten ari diren 32 haur eta gazteak igoko dira eszenatokira dantza moderno, garaikide eta klasiko edo estiloen arteko uztarketa diren koreografiak eskaintzeko. 7 eta 9 urte artekoak ariko dira alde batetik eta, bestetik, 10 eta 17 urte bitartekoak. Ikasturtean zehar ikastakoa erakutsiko dute gaurko emanaldiarekin.

## JUUL saria Suarezendako

Nafarroako Ikastolen Elkarteak 16. urtez JUUL literatura hauteskundeak antolatu ditu. Liburuaren egunaren kontura, apirilean, Euskal Herriko 48 ikastoletako ikasleek euren gogoko idazle eta ilustratzaileak aukeratu zituzten. Maila bakoitzean bozkatuenak izan ziren sortzaileei ostegunean saria eman zieten Zangozan. Haien artean zegoen Castillo Suarez. Gaiantzeko saritu guztien modura, altsasuarrak, Dora Salazarrek ekimenerako propio sortutako *Izatearen ezina (Venus) La imposibilidad de ser* eskulturaren ale bat jaso zuen.



UTZITAKOIA

## Hirugarrenean, Kuba

Igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan

Musika Plazan zikloaren hirugarren emanaldia Kubako eta Euskal Herriko musikariek osatutako La Jodedera taldeak eskainiko du. Laukotea Jon Txorromorrok (gitarra jotzailea eta kantaria), James Bapek (baxu jotzailea), Mandi Cienfuegos (perkusionista eta kantaria) eta Oscar La Habanak (treskubatarra) osatzen dute. 2009az geroztik ari dira musika sortzen eta jendeak ondo pasatzera eta dantza egitera gonbidatzen. Bigarren diskoa aurkeztuko dute Etxarri: *Karibe Kantari* (auto-ekoizpena).

## Esker onez, hurrengora arte

Larunbatean despeditu zen IV. Teatreves, Altsasuko Antzerki Amateur Zikloa. Antolakuntzan aritu diren Tarima Beltzako kideak hiru emanaldien balantze positiboa egin dute. Azaldu digutenez ia bostehun ikusle bildu dira Iortian izan diren emanaldietan. Horregatik, publikoak eta Altsasuko Dendariek Elkarteak, eta Alde Zaharreko tabernarien Xurrut elkarteak emandako laguntza eskertu dute.

Larunbatean azken bi babesle horiek emandako sariak zozketatu zituzten. Conchi Lezea izan zen zorionekoa azken saioan.



## G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 68%	euria: 68%	euria: 33%	euria: 20%	euria: 18%	euria: 75%	euria: 33%	
Min: 8 Max: 13	Min: 8 Max: 13	Min: 9 Max: 15	Min: 9 Max: 16	Min: 8 Max: 18	Min: 9 Max: 13	Min: 7 Max: 16	

## : temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	20	4.5	59.2
Altsasu	18	5	45.4
Aralar	10.6	0	60.8
Urbasa	15	4	54.8

## : ilargiaren aldia >>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	5	13	19	27

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Maiatzeko **bazkide sarituak**

- 1.- **Nerea Murillo Loidi**  
(Irurtzun)
- 2.- **Asier Beltza Arza**  
(Uhartte Arakil)
- 3.- **Itziar Nazabal Regueira**  
(Altsasu)
- 4.- **Estibalitz Irigoien Irigoien**  
(Altsasu)

**GARAGARRILEKO SARIAK:**

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtaketa Gaztezu aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.

2. Artzako kanpinean %10eko deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak eta Gaztezu aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.

3. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezu aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.

4. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezu aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.


>> 11

galdera

Jorge Azanza

Ziordiko I. Herri Krosa

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu



Jorge Azanza eta Jose Ramon Ramirez lasterketako kartelarekin.

MAIATZAK 30-31 EKAINAK 1

Sakatxartel

asteburua

Asteburu honetan erabili

Beleixeguaixe txartela

eta sari hauen zozketan parte hartuko duzu!

SARIAK

1.saria: 2 sarrera Urbasa Abentura parkerako eta 2 lagunentzako bazkaria Urbasako Kanpinean

2.saria: Erein argitaletzeko liburu lote bat + Beleixeguaixe txartel bat

### 1. Ziordian I. Herri Krosa antolatu duzue iganderako.

Ziordiko gazte batzuen ideia izan zen, bereziki Jose Ramon Ramirezena. Betidanik ibili dira korrika eta pentsatzen zuten herrian ez denez apenas jarduerarik egoten, lasterketa bat egitea. Laguntza eskatu zidaten eta oso kontentu nago lagundu ahal izateagatik. Hiruzpalau hilabete daramatzagu lanean, Jose Ramon bereziki, antolatzaileak eta laguntzaileak bilatzen. Prest dugu lasterketa.

### 2. Txapelketa antolatzeko taldea sortu da, Ziordiko running taldea.

Lasterketa antolatzeko izen bat behar genuen, eta baita sare sozialetan facebooken, twitterren eta beste agertzeko ere. Eta horrela deitu diogu. Lauzprobost lagun gabilta proba antolatzen. Bereziki Jose Ramon, bera izan da sustatzaile nagusia. Besteak berari laguntzen.

### 3. Herri bakoitzak kros bat behar ko luke?

Polita litzateke herri bakoitzak bere lasterketa izatea eta herri guztien artean Kopa jokatzeko. Gu jada sartu gara. Ziordiko lasterketa, gainera, Sakanako Koparako puntuagarria izango da.

### 4. Lasterketa Otik antolatu duzue. Norbaiten laguntza izan duzue?

Hasiberriak gara eta Dantzaleku Sakanaren estela jarraitu dugu. Esaterako, inskripzioak euren web orriaren bitartez egiten ari gara -www.dantzalekusakana.com-. Babesleak eta laguntzaileak guk lortu ditugu, udalarekin batera. Hemendik eta bestetik hartzen, eta Dantzaleku Sakanaren bultzadarekin halaxe sortu dugu lasterketa.

### 5. Izena ematea dohainik da. Zergatik?

Hala izateko atzean lana dago, babesleak bilatzearena, baina saiatu gara kolaboratzaileek emandako laguntzarekin nahikoa izaten. Falta izan dena Ziordiko Udalak jarri du. Sariak izango dira eta korrikalariendako auzatea: uste dugu ongi ateratzea. Babesle gehienak herrikoak, gertukoak edo lagunak dira. Ukitu ditugun ate guztietan zerbait eman digute eta hori eskertzekoa da. Bestalde, egunean Nafarroako Elikagai Bankurako janari bilketa egingo da. Nahi duenak lagundu dezala.

### 6. Nolako izango da lasterketa?

Proba nagusia 12:00etan hasiko da. Aldaketa egin dugu eta azkenean 6,8 km-ko proba izango da. Ibilbide nahiko laua da, 300 metroko aldapa bat izan ezik. Distantzia ez oso gogorra izatea nahi genuen, jendea gehiago animatzeko. Zirkuituari 3 buelta eman beharko zaizkio. Oso ibilbide polita da. Plazatik irten eta Olazti aldera joko du, partzelariatik. Tellerian buelta hartu eta hor dago aldatxoa. Herrira goikaldetik sartuko da eta eliza atzetik buelta emango zaio herriari, gaztelutik atzera ere plazara ateratzeko. Lehen hirurek, gizonetakoek eta emakumetakoek, produktu loteak jasoko dituzte eta txapeldunek txapelak. Eta korrikalari guztien artean gazta, ardoa eta beste zozketatuko dira.

### 7. Haurrendako ere probak antolatu dituzue.

Bai, 11:00etan hasita. 3 lasterketa egingo ditugu txikienendako. Oso karrera sinpleak izango dira, gurasoekin etortzen diren haurrek eta

hala nahi duten guztiek parte hartu dezaten. Bukaeran Family Park parkerako 12 sarrera zozketatuko ditugu guztion artean.

**8. Izena ematea non?**  
Aurretik [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com)-en eta lasterketa egunean 10:00etatik aurrera Ziordian.

### 9. Probaren egunean laguntzaileak beharko dituzue.

Lasterketa egunean behar ditugu laguntzaileak bidegurutzetan egoteko, gauzak banatzeko, haurrekin egoteko... Egia esan ziordiarrek lasterketa antolatzeari ongi hartu dute. Jendea kontutu dago eta laguntzeko prest. Aurretik guztia ongi finkatuta utzi eta gero, guk korrika egitea nahiko genuke.

### 10. Etzi sakandarrak Ziordira gerturatzea animatuko ditugu!

Ilusio handiarekin prestatu dugu lasterketa eta gustatuko litzazuke jendea Ziordira etortzea, baina ez bakarrik lehiazera, goiza gure herrian pasatzera ere. Dena ondo ateratzea espero dugu, eta jendeak disfrutatzea. 6,8 km-ko proba da, erraz egiteko modukoa, bakoitzak ahal duen moduan. Sakanako jende guztia animatzen dugu Ziordia bisitatzera hurbil dadin.

### 11. Datorren urteetan jarraitzea espero duzue?

Aurtengoa ongi ateratzen bada bigarrenaren bila joango gara edo nork daki, akaso beste erronka bat antolatzera. Gure informazio guztia facebooken dago (running Ziordia). Bestalde, kolaboratzaile guztiei gurekin izan duten arreta eskertu nahi genieke. Lehenengo momentutik egin digute kasu.